


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**KANADAKO ANIZTASUN KULTURALAREN KUDEAKETA:
ESTATUAREN MULTIKULTURALISMOTIK QUEBEC-EKO
KULTURARTEKOTASUNERA**

ZUZENBIDE GRADU AMAIERAKO LANA 2022-2023

Egilea: Ainhoa Cuesta Ibarra

Tutorea: Igor Minteguia Arregui

LABURPENA:

Kanadako estatuaren sistema, gizartea eta bere funtzionamenduan murgilduko gara, bertako multikulturalitatea ezagutzeko. Era berean, demokrazia multikulturala bermatzeko estatuan bideratzen diren lege, proiektu eta politika desberdinak aztertuko ditugu. Multikulturalismoaren babes konstituzionalarekin eta arrazoizko moldaketen aplikapenarekin, bateragarriak bilakatzen dira justizia-arauak eta multikulturalismoaren berezko aniztasuna aitortzeko eskakizunak. Hala ere, Kanadako estatuan babes judizial hau eskuratzen den arren, kulturaztasunaren babesa kolokan jartzen hasten da Quebec-en arrazoizko moldaketen krisialdia ematen denean. Quebec Kanadaren barruan aurkitzen den probintzia berezia da; besteak beste, hizkuntza, kultura, ohitura propioak dituenak. Horrela, Quebec-eko gizartearen jatorria eta eztabaiden oinarria joko dugu, Bouchard-Taylor txosteneko azterketak islatuz. Bouchard-Taylor txostena eratzen da, arrazoizko moldaketen inguruan huts egin dena ulertzeko eta bere aplikazioaren inguruan galdutako bake soziala berreskuratzeko irtenbideak emateko.

ABSTRACT:

We will dive into the system, society and its functioning of the Canadian state to learn about its multiculturalism. Likewise, we will analyze the different laws, projects and policies that are oriented at the state level to guarantee multicultural democracy. With the constant protection of multiculturalism and the application of reasonable accommodations, the norms of justice and the demands for recognition of the intrinsic diversity of multiculturalism become compatible. However, although this judicial protection is acquired in the Canadian state, the protection of multiculturalism begins to fail when the crisis of reasonable accommodation in Quebec occurs. Quebec is a special province within Canada, with its own languages, cultures, customs, etc. Thus, we refer to the origin of Quebec society and the basis of the debates, reflecting the studies of the Bouchard-Taylor report. The Bouchard-Taylor report is prepared to understand what has failed regarding reasonable arrangements and provide solutions to recover the social peace lost around its application.

RESUMEN:

Nos adentramos en el sistema, en la sociedad y en el funcionamiento del estado Canadiense para poder conocer su multiculturalidad. Asimismo, analizaremos las diferentes leyes, proyectos y políticas que se orientan a nivel estatal para garantizar la democracia multicultural. Con la protección constante del multiculturalismo y la aplicación de adaptaciones razonables, las normas de justicia y el reconocimiento de la diversidad del multiculturalismo se hacen compatibles. Sin embargo, aunque en el estado canadiense se adquiere esta tutela judicial, la protección de la multiculturalidad empieza a tambalearse

cuando se produce la crisis de los arreglos razonables en Quebec. Quebec es una provincia especial dentro de Canadá, con su lengua, su cultura, costumbres propias, etc. Así, nos remitimos al origen de la sociedad quebequesa y a la base de los debates, reflejando los estudios del informe Bouchard-Taylor. Se elabora el informe Bouchard-Taylor para entender lo que se ha fallado en torno a arreglos razonables y aportar soluciones para recuperar la paz social perdida en torno a su aplicación.

HITZ GAKOAK: aniztasun kulturala, multikulturalismoa, kulturartekotasuna, arrazoizko moldaketa eta adostutako moldaketak.

KEY WORDS: cultural diversity, multiculturalism, interculturalism, reasonable accommodation and concerned adjustments.

PALABRAS CLAVE: diversidad cultural, multiculturalismo, interculturalidad, adaptación racional y adaptaciones acordadas.

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 5 |
| 2. KANADA: TESTUINGURUA ETA ANIZTASUN-KULTURALA | 6 |
| 2.1. KANADAKO EREDU POLITIKOA | 6 |
| 2.2. KANADAKO SORRERA | 7 |
| 2.3. KANADAKO GIZARTEA GAUR EGUN | 9 |
| 2.4. MULTIKULTURALISMOA ETA HAU BERMATZEKO BALIABIDE JURIDIKOAK | 11 |
| 3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA | 14 |
| 3.1. KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA | 14 |
| 3.2. JATORRIA | 16 |
| 3.3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA KANADAN: AIPAMEN BEREZIA SIMPSON SEARS KASUARI | 17 |
| 4. ARRAZOIZKO MOLDAKETA QUEBEC-EN | 24 |
| 4.1. QUEBEC-EKO KULTURA-ANIZTASUNA ZEHAZKI | 24 |
| 4.1.1. HISTORIA | 24 |
| 4.1.2. AZTERKETA SOZIOLOGIKOA GAUR EGUN | 26 |
| 4.2. QUEBEC ETA KANADAREN ARTEKO TENTSIOA | 28 |
| 4.3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA APLIKATZEKO POLITIKA, QUEBEC-EKO KULTURARTEKOTASUNA ETA KANADAKO MULTIKULTURALISMOA | 30 |
| 4.4. QUEBEC-EKO ARRAZOIZKO MOLDAKETEN KRISIALDIA | 34 |
| 4.5. KRISIALDIAREN ONDORIOAK | 36 |
| 4.6. BOUCHARD TAYLOR TXOSTENA | 38 |
| 4.6.1. AURREKARIAK | 38 |
| 4.6.2. EDUKIA | 40 |
| 4.6.3. TXOSTENAREN ONDORIO AIPAGARRIAK | 49 |
| 4.6.4. TXOSTENAREN GOMENDIO GARRANTZITSUENAK | 51 |
| 5. ONDORIOAK | 53 |
| BIBLIOGRAFIA | 55 |
| KONTSULTA WEBGUNEAK: | 57 |
| JURISPRUDENTZIA: | 59 |
| ARAUTEGIA: | 59 |

1. SARRERA

XXI. mendeko gizarteak anitzak direla errealitate ukalezina da. Globalizazioak eta etorkinen mugimenduek aniztasun kulturala bultzatu dute lehen uniformeak ziren gizarteetan.

Aniztasun hau aberastasun moduan ulertu behar dugu, baina faktore honek ere arazo eta gatazka berriak sortu ditu. Erronka honen aurrean, botere publikoek erantzun desberdinak planteatu dituzte.

Tradizionalki batasuna eta kohesioa bermatzearren eta Estatu-Nazioaren kontzeptua bultzatzeko helburuarekin asimilazio politikak izan dira nagusi Estaturen aldetik, homogeneousun artifisial bat eta gehiengoaren identitate kulturala inposatuaz, hala nola, kolonizatzaileena lurralde kolonizatueta. Azken hamarkadetan, ordea, gutxiengoaren desberdintasunerako eskubidearen inguruko sentsibilizazio joera bat eman da botere publikoen aldetik, beste politika eta formula batzuk aplikatuaz.

Lan honetan, aniztasun kulturala kudeatzeko politiketan aitzindaria izan den Kanadaren formula aztertuko dugu. Bertan aniztasun kultural nabari bat emateko inguruabar guztiak ematen dira, hots, berezko biztanleri indigena, gutxiengo nazionalak eta etorkin kopuru handia. Testuinguru honetan, zehazki, Kanadako Quebec lurraldearen politikak ikertuko ditugu, non kulturartekotasunaren eredu aurkitzen dugu aniztasun kulturalari erantzuna emateko. Eredu honen barne, zeharkako diskriminazio kulturala zein erlijiosoarekin zerikusia duten gatazkei irtenbidea emateko sortutako tresna juridiko zehatza den arrazoizko-moldaketaren (*reasonable accommodation*) inguruko azterketa bat burutuko dugu. Honen barne, Quebec-en burututako Bouchard-Taylor txostenari erreferentzia berezia egingo diogu, kulturartekotasun politiken eta arrazoizko moldaketaren aplikazioaren inguru egin den azterketarik sakonena bezala.

2. KANADA: TESTUINGURUA ETA ANIZTASUN-KULTURALA

2.1. KANADAKO EREDU POLITIKOA

Munduko herrialde garatuenetako bat dugu Kanada eta bere hiriburua Ottawa da (Ontarioko probintzian kokatuta)¹. Nazio industrial da, teknologiaren aplikapenean aitzindaria da eta oso aurreratuta dago. Are gehiago, ekonomia dibertsifikatua du, aztarnategi handiengatik eta baita dituen baliabide natural ugariengatik ere.

Kanadak Estatu Batuekin muga egiten du, baina honekin muga egiten duten beste estatu batzuekin alderatuaz, merkatal ikuspegitik, EE.BB.-kiko independentea da bere ekonomia dibertsifikatua dela eta².

Kanada, Estatu federal parlamentarista da eta tradizio demokratiko sendokoa. *Commonwealth*³-eko parte den Estatu izanik, Kanadako estatuburua Britaina Handiko Erregea da, Carlos III.-a⁴. Kanadako Gobernadore Nagusia Mary Simon da eta estatuburu bezala jarduten du erregearen ordezkari gisa, Estatuko errealitate politikoa bideratzen duena, alegia. Gobernadore Nagusiak Lehen Ministroa izendatzen du, Kanadako gobernuburua dena. Gaur egun, Justin Trudeau da Kanadako Lehen Ministroa; 2015eko azaroaren 4ean kargua eskuratu zuen eta 2019ko hauteskunde orokorretan bere alderdiak berriro lortu zuen garaipena, postuan mantenduaz gaur egun arte.

¹ Eskuragarri: Espainiako Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioaren Informazio Diplomatikorako Bulegoak egindako Kanadako estatuaren fitxa publikoa. https://www.exteriores.gob.es/documents/fichaspais/canada_ficha%20pais.pdf (2023/03 argitaratua. Azken kontsulta data, 2023/05/05)

² Hristoulas, A. (2000). "El ejercicio del poder internacional de Canadá a través de su política exterior. Tendencias y desarrollo". HHAA (Gutiérrez-Haces, T. koor.). *Canadá un estado posmoderno*. Plaza y Valdés. México. 474-485 orrialdeak.

³ Commonwealth mankomunitatearen webgune ofiziala: <https://thecommonwealth.org/>. (Azken kontsulta data, 2023/05/25)

⁴ Mckeever, A., "¿Qué es la Commonwealth?", *National Geographic*-en webgunean 2023-05-08 argitaratua, <https://www.nationalgeographic.es/historia/que-es-la-commonwealth> (azken kontsulta: 2023/05/05).

⁵ Aipatu dugun bezala, Kanada, gaur egun *Commonwealth*-eko kidea da. Britainar Koroaren parte izan diren estatu subiranoak dira mankomunitate honen parte, 56 Estatu hain zuzen ere. Mankomunitatearen helburu nagusia, politika eta ekonomia arloan nazioarteko lankidetzaz bermatzea da. 1950 urtetik aurrera, mankomunitate honen parte izateak ez du suposatzen estatuek Erresuma Batuetako Koroarekiko menpekotasunik izan behar dutenik. Hala ere, *Commonwealth*-aren parte diren estatu ugariak Erresuma Batuko erregearen erakundea errespetatzen jarraitzen dute gaur egun, besteak beste, Kanada edota Australia. Hori dela eta, Kanadako erregea Carlos III da.

Sistema federalari⁶ dagokionez, Kanadak gobernu federal nazionala du, gobernu probintzialekin eta lurralde gobernuekin. Kanadako Federazioak hamar probintzia ditu eta hiru lurralde. Kanadako lurralde baten eta probintzia baten arteko desberdintasun nagusia da probintziek Koroarengatik zuzenan jasotzen dituztela gobernu-botere guztiak, 1867ko Konstituzioaren Aktaren bidez. Lurralde batek dituen eskuduntzak, aldiz, gobernu federalak eskuordetzen dizkio. Horrenbestez, probintzia batek eskuduntza gehiago ditu lurralde batek baino⁷. Kanadako probintziak Alberta, Columbia Britanikoa, Manitoba, Brunswick Berria, Terranova eta Labrador, Escocia Berria, Ontario, Eduardoren printzipearen irla, Saskatchewan eta Quebec dira. Bestetik, lurraldeak, Nuvanut, Ipar- ekialdeko lurraldeak eta Yukon dira.

Lan honetan, Kanadako probintzia zehatz batetaz arduratu gara bereziki. Quebec-etaz hain zuzen ere, Estatu honek beste lurraldeekiko dituen desberdintasun kulturalak direla eta. Quebec-en garrantzia goraipatzekoa da, honek duen eraentza berezia eta kultura desberdinuaren ondorioz, Kanadako probintzi frankofono bakarra baita.

2.2. KANADAKO SORRERA

Kanadako gaur egungo gizartea eta bere konposaketa soziologikoa ulertzeko, ezinbestekoa da aurrekariak kontuan hartzea. Hori dela eta, Kanadako historian eta bere sorreran murgilduko gara epigrafe honetan⁸.

⁶ Kanadako eredu federalean sakontzeko, ikus: Romero Caro, F.J. (2020), *El sistema federal de Canadá ¿Un modelo de integración? Crisis secesionista de Quebec y evolución del sistema federal*, Fundación Manuel Giménez Abad, Zaragoza.

⁷ Etxezarreta Zubizarreta, M. (2000), “Canadá, el primer país en desarrollo humano. Luces y sombras”, *Revista de Economía Mundial*, 3. zenbakia, 149-151 orrialdeak. Autore honek dionez, “provincia es utilizado en Canadá para referirse a las diversas componentes de un Estado federal, equivalentes con sus diversos grados de autonomía a los Estados en Estados Unidos, los “lander” en Alemania, o las Comunidades Autónomas de España”.

⁸ Kanadako historia eta garapena ezagutzeko, ikus, besteak beste, Castellá Andreu, J.M^a. (2001), “La evolución político-constitucional de Canadá”, HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona, 27-52 orrialdeak.

Gaur Kanada bezala ezagutzen den lurraldean bizi izan ziren lehenengo biztanleak bertako zenbait herri indigenak edo “Lehen nazioak” (*first nations*) bezala ezagutuak diren talde indioak⁹ eta baita jatorri eskimalako *inuit*-ak¹⁰ ere.

1534 urtean, Jacques Cartier, frantziar esploratzailea, Kanadara heltzen da¹¹. Honek, Quebec eta Montreal inguruko eskualdea frantziar lurralde gisa aldarrikatu zuen. Horrenbestez, 1600 urtetik aurrera, lurralde honetara kolono frantsesak heltzen joaten dira. Gaur egun Quebec, Brunswick Berria eta Nueva Escocia bezala ezagutzen ditugun lurraldeetan kokatzen dira hain zuzen ere eta lurralde guzti hauek Frantziar berria (*Nouvelle-France*) bezala izendatuak dira. Kolonizazio honek 1763 urtera arte iraun zuen¹².

1756 urtean “Zazpi urteko guda” hasi zen, frantziarren eta britaniarren artean. Frantzia berria bere amaierara iritsi zen 1763 urtean frantziarren porrotaren ondorioz. Guda 1763 urteko otsailaren 10ean amaitu zen “Paris-eko Tratatu”-ren bitartez¹³. Tratatu honetan, Frantziak Britania Handiaren esku uzten zuen Kanada. Gertakari honek, Frantziak Kanadan zuen botere politikoaren amaiera ekarri zuen. Hala ere, ez zuen frantsesen presentziaren amaiera ekarri. Jacques Mathieu-k dioenez, “frantziak ondare oso baliagarria utzi dio Kanadari; herri frankofonoa. Herri honek, beren hizkuntzak, erlijioak, gizarte-praktika eta tradizio propioak garatu dituzte, erakundeek babestuta¹⁴”. Hau kontuan hartuta, 1763 urtean Britaniar Kolonia eratzen da Kanadan.

⁹ Ikus: Kanadako Gobernuak argitaratutako indio-en inguruko informazioa. Eskuragarri: <https://www.sac-isc.gc.ca/eng/1100100032374/1572457769548> (azken kontsulta: 2023/05/25)

¹⁰ Kanadako Gobernuak bere orrialde ofizialean argitaratutako inuit-en inguruko informazioa. Eskuragarri: <https://www.rcaanc-cirnac.gc.ca/eng/1100100014187/1534785248701#> (azken kontsulta, 2023/06/02)

¹¹ Castellá Andreu, J. M^a. (2001), 28-35 orrialdeak.

¹² Historiaren inguruan gehiago ezagutzeko ikus Blakemore, E. “La historia de Nueva Francia: la cuna del Canadá moderno”, *National Geographic*-en webgunean 2020/09/07 argitaratua. Eskuragarri: <https://www.nationalgeographic.es/historia/2020/08/historia-de-nueva-francia-cuna-del-canada-moderno>. (Azken kontsulta, 2023/06/10)

¹³ Paris-eko Tratatu Zazpi Urteko Gudari amaiera eman zion bake-ituna izan zen. Britaniar Handiko Erresumaren gaipenaren bitartez, Frantziak Asiako eta Amerikako lurralde ugari jabetza galdu zuen.

¹⁴ Mathieu, J. (2013). “New France”, *The Canadian Encyclopedia*. Artikuluak dioenez, “*Through the Treaty of Paris 1763, France ceded its colony to Britain. This essentially marked the end of France’s political power in America, but not of the French presence.*” Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/new-france> (azken kontsulta: 2023/05/09).

1867 urteko uztailaren 1-a azpimarratzekoa da, une honetan, gaur egun ezagutzen dugun Kanada eratzen baita. Data horretan, Britania Handiko Kanadako Koloniak bateratzen dira (gaur egungo Ontario, New Brunswick, Nueva Escocia eta Quebec) Ipar Amerikako Lege Britaniarraren (*British North America Act*¹⁵-ren) bitartez¹⁶.

Gaur egungo Kanada osatzen den unerako, hainbat kultura desberdin errotuak zeuden lurralde honetan. Honi gehitu behar zaio, II. Mundu Gerratik aurrera, jatorri eta kultura desberdineko etorkin ugariak Kanada aukeratu zituzten helmuga bezala bere lan merkatuak eskaintzen dituen aukerengatik. Faktore guzti hauek gaur eguneko Kanadiar gizartearen kultur-aniztasunaren arrazoi historikoak dira.

2.3. KANADAKO GIZARTEA GAUR EGUN

Kanadako Estatistika Institutuak (*Statistics Canada*)¹⁷ 2021-ean emandako datuen arabera, 38.504.990 biztanle ditu Kanadak. Gaur egun, biztanleen % 32,5-a britaniar jatorrikoak dira (5,3 miloi Ingalaterrako jatorria dute, 4,4 miloi pertsonen jatorri irlandarra eta 4,4 miloi pertsonen jatorri eskoziarra), %13,6-a frantziar jatorrikoak (4 miloi) dira, % 9,6-a alemaniar jatorrikoak dira, % 6,2-a herri indigenetako (Kanadako herri indigenak: “Lehen Nazioak”, *Inuit*-ak eta *Metis*¹⁸-ak) jatorria dute. Are gehiago, %5,1-a txinatar jatorria dute, % 4,6-a italiar jatorria, % 3,6-a ukrainiar jatorria eta gainontzekoak beste nazionalitate edo jatorrikoak dira.

Hauetaz gain, Kanadako biztanleriaren proportzio txiki baten parte dira gehiengo musulmaneko estatu etorkinak eta baita India zein Pakistaneko *Sikh*-ak ere. Izan ere,

¹⁵ Castellá Andreu, J,M^a (2001), 37-42 orrialdeak.

¹⁶ *The Canadian Encyclopedia* (egilea zehaztu gabe), “Confederation, 1867” (Argitaratua, 2017/03/31). Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/confederation-1867> (azken kontsulta: 2023/06/10).

¹⁷ Ikus: *Statistics Canada*, Kanadako estatistika bulego nazionala da. Kanadako ekonomiarekiko, gizarteriarekiko eta ingurumenarekiko herritarrek informazio guztia eskuragarri izatea bermatzen du. Hemen aurki daiteke orrialde nagusia: <https://www.statcan.gc.ca/en/start> (Azken kontsulta, 2023/06/08).

¹⁸ *Metis*-ak, Kanadako talde etniko bat dira. Jatorri mestizoko komunitatea da, lehen nazioetako emakumeen eta langile britaniar eta frantsesak diren gizonen batasunetik sortutako gizabanakoak dira.

azpimarratzekoa da, *Statistics Canada*-ko azterketaren arabera, azken bi hamarkadetan azken jatorri honetan etorkinen kopurua bikoiztu baino gehiago egin dela. Era berean, datuek erakutsi dute Kanadan arrazializatutako talde guztiak haziz doazela denborak aurrera egin ahala: hego asiarrak (% 7,1) zein txinatarrak (% 4,7) eta baita beltzak (% 4,3) ere.

Ildo beretik jarraiki, 2021ean egindako erroldan, 450 jatorri etniko edo kultural baino gehiago identifikatu ziren Kanadan bertan¹⁹. Datu estatistiko hauetan antzematen denez, Kanada etnia anitzeko herrialde eleaniztuna da. Jatorri hain desberdinetako hainbat biztanle edukitzea eragin handia du Kanadako sistema eta kulturean.

Ugaritasun honek Kanada aberasten duenaren kontzientzia errotu da. Horrela, 2020-an *Statistics Canada*-k egindako inkesta batean erantzunen %92-ak adierazten zen (inkestatu guztiek 15 urte baino gehiago zituzten) aniztasun etniko edo kulturala Kanadako funtsezko balioetako bat dela. Hala ere, aniztasun etniko edo kultural honek botere publikoentzat bizikidetzak baketsua bermatzeko erronka bat suposatzen du.

Gizarte batean aniztasun kulturala emateko 3 faktore nagusi daude: gutxiengo indigenak, gutxiengo nazionalak eta etorkin taldeak. Kanadaren kasuan, 3 faktoreak ematen dira:

Lehendabizi, Kanadako lehengo biztanleak; herri indigenak. 1960 urtean, Kanadako herri indigenek Kanadako nazionalitatea lortu zuten. Are gehiago, gaur egungo Konstituzioaren 35 artikuluetan²⁰, 3 talde indigena aitortzen ditu: *Iniut*, *Metis* eta “Lehenengo Nazioak”.

Bestalde, gutxiengo nazionalen azterketan murgilduz, Quebec-eko probintziako herritar frankofonoak aipatuko genituzke. Quebec-eko atalean azalduko dugun bezala, kultura eta hizkuntza propioa dute Kanadarekin alderatuz. Horrenbestez, Kanadaren barruan, Quebec-eko biztanleak dira gutxiengo nazionalak.

¹⁹ Statistics Canada. “*The Canadian census: A rich portrait of the country 's religious and ethnocultural diversity.*” (Azken kontsulta: 2022ko urriaren 26a). Eskuragarri: <https://www150.statcan.gc.ca/n1/daily-quotidien/221026/dq221026b-eng.htm>

²⁰ Ruiz Vieytez, E. J. (2009). “Crítica del acomodo razonable como instrumento jurídico del multiculturalismo”, *Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho*, 18 zenbakia. Ikus, 16-17 orrialdeak.

Azkenik, azpimarratzekoa da Kanadako biztanleriaren %21-a etorkinak direla. Etorkinen kopuru handiena Asiatik datorrela adierazten dute datuek. Etorkinen kopuru honi, Kanadako Gobernuak *visible minority*²¹ deritzo. Kanadako agintariek izendapen hori hautatu zuten etorkin berrienak bereizteko kanadiar herri indigenekiko eta bestelako gutxiengoekiko.

Kanadako datuak kontuan hartuta, Kanada Estatu multikultural gisa definitu dezakegu. Kanadak duen aberastasun kultural hau babesteko nahiarekin, gutxiengoen parte hartzea sustatu nahi du bizitza politiko eta kulturalean. Aberastasun kultural honek ere bizikidetzan erronka eta arazoak dakartza eta hauen aurrean Kanadako botere publikoek erabilitako baliabide, politika eta tresnak aztertzeari ekingo diogu.

2.4. MULTIKULTURALISMOA ETA HAU BERMATZEKO BALIABIDE JURIDIKOAK

Aurreko epigrafean ikusi dugun moduan, Kanada gizarte kultur-anitza da. Kanadako botere publikoak aniztasun honek sortutako erronkei aurre egiten aitzindaria izan da.

Kanadak, 70. hamarkadatik egin du multikulturalismoaren aldeko apustua bere politika publikoetan²². Politika hauek 60. hamarkadan emandako gertakarien erantzun eta ondorio izan ziren; hala nola, emandako immigrazioak, nazionalismo franko-kanadarren berpiztea eta Kanadako Estatuan emandako aldaketa ugariak. Gertakari hauen ondorioz, garai horretan Lehen Ministroa zen Pierre Trudeau-k multikulturalismoaren politika bultzatu zuen ofizialki.

Trudeau-k Kanadako kultura aniztasunaren garrantzia aitortu zuen esparru kultura-bitasun baten barruan, beti ere batasun nazionalaren sustapen ardatza hartzen zuelarik. Hala ere, talde

²¹ Adibidez: "Visible minority" kontzeptua barneratzeko, Kanadako Gobernuaren zehaztapena ikus. *Statistics Canada*: "Visible minority refers to whether a person is a visible minority or not, as defined by the Employment Equity Act. The Employment Equity Act defines visible minorities as "persons, other than Aboriginal peoples, who are non-Caucasian in race or non-white in colour". The visible minority population consists mainly of the following groups: South Asian, Chinese, Black, Filipino, Arab, Latin American, Southeast Asian, West Asian, Korean and Japanese." (Azken kontsulta: 2023/05/05). Eskuragarri: <https://www23.statcan.gc.ca/imdb/p3Var.pl?Function=DEC&Id=45152>

²² Oliveras Jané, N. (2001). "El multiculturalismo", HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona, 246-249 orrialdeak.

etniko ugarik, kultura-bitasun horren aurka egin zuten eta multikulturalismoaren alde. Honen aurrean, 1971. urtean Trudeau-k aurretik aipatutako multikulturalismoaren politika bultzatzen du²³, kultura askatasuna ziurtatzen duena eta batasun nazionala babesten duena.

Trudeau-k ezarritako politika federal honen ostean, Kanadako gaur egun indarrean dagoen Konstituzioa onartu zen²⁴; hain zuzen ere, Isabel II-ak 1982ko apirilaren 17an Konstituzio²⁵ berriaren onarpena eman zuen Ottawa-n. Konstituzio honen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da bere baitan Kanadako eskubideen eta askatasunen gutuna²⁶ (*Charte Canadienne des droits et libertés*) atxikitua gelditzen dela bere babespean²⁷.

Gure gaiari dagokionez, gutun hau Konstituzioan barneratzeak badu garrantzia. Hain zuzen ere, honen 27. artikulua hurrengoa dio: “*Maintien du patrimoine culturel. Toute interprétation de la présente charte doit concorder avec l’objectif de promouvoir le maintien et la valorisation du patrimoine multiculturel des Canadiens.*” Hots, honen bestez, Kanadako aniztasuna kulturala Estatuko ondareztat jotzen da, mantendu eta sustatu beharrekoa Konstituzioaren aginduz²⁸.

²³ Dávila, R.A. (2013), “El multiculturalismo en Canadá a la luz de los cambios en las políticas migratorias y de flujo de migrantes”, *Revista de Investigación Social*, 10. Urtea, 17. Zenbakia. Ikus 41-45 orrialdeak

²⁴ Kanadan indarrean dagoen Konstituzioa. “The constitution Acts of Canada 1867 to 1982” edo “Lois Constitutionnelles de 1867 à 1982”. 2021eko urtarrilaren 1etik indarrean dago, Kanadako Justiziako Ministroak argitaratua. “Canadian Charter of Rights and Freedoms” 47 orrialdetik aurrera. Eskuragarri: https://laws-lois.justice.gc.ca/PDF/CONST_TRD.pdf. (azken kontsulta, 2023/06/12)

²⁵ Aipagarria da, legedi honek, Erresuma Batuetako parlamentuak Kanadako Konstituzioa eraldatzeko zuen eskuduntza bertan behera uzten duela.

²⁶ Gaztelaniako bertsioan Kanadako eskubide eta askatasunen gutuna eskuragarri: https://www.oas.org/ext/Portals/33/Files/Member-States/sp_can_const.pdf

²⁷ Hristoulas, A. - Denis, C. - Wood, D. (2005). *Canadá: política y gobierno en el siglo XXI*. Miguel Ángel Porrúa. Mexico, 31-32 orrialdeak.

Kanadako Konstituzioaren 52.1 artikulua dio, edozein lege probintzial edo federal gutunarekin bateraezina dena, deuseza izango dela (61 orrialdean. Part VI, “*Amendment to the Constitution Act, 1867*”). Era berean, Konstituzioaren 24. artikulua dio (54 orrialdean. Part I, “*Enforcement of guaranteed rights and freedoms*”) gutunean babesten den edozein eskubide urratua bada, edozein herritar Kanadako auzitegiatar aurkeztu daitekeela.

²⁸ Intxaurbe Vitorica, J. R. (2016). *El empleo de signos dinámicos de adscripción religiosa en los espacios públicos y su gestión a través del instrumento jurídico del acomodo razonable: estudio de caso de la comunidad sij*. Ser. Estudios, Aranzadi. Deustoko Unibertsitatea. Interesgarria hirugarren kapituluaren barruan, “3. El cambio de paradigma del artículo 27 CCDL. el carácter “neutral” de la tradición frente a la libertad religiosa de las minorías” (254-257 orrialdeak).

Honen aurrean, urte batzuk beranduago, 1985 urtean, Kanadako Multikulturalismoaren Akta (*Canadian Multiculturalism Act*-a)²⁹ onartu egin zen. Honek, gutunaren 27 artikulua horrek aipatzen duen eta Trudeauak bere momentuan egindako multikulturalitatearen inguruko politikaren oinarri legalak berretsi zituen, herritar guztiak aniztasuna errespetatzen dutela eta gobernuaren aldetik tratatu berbera jasoko dutela bermatzen da aktan. Era berean, momentu honetan, multikulturalitatea gizartearen funtsezko balore bihurtzen duen munduko lehenengo herrialdea bilakatzen da Kanada.

Akta honetan garatzen diren baloreak hurrengokoak dira, besteak beste: giza eskubideak, diskriminazio eza eta berdintasuna legearen aurrean, Kanadako ondare kulturalaren garrantzia, ikasleen eskubideak, herri autoktonoen eskubideak, hizkuntza ofizialen inguruko legedia eta abar³⁰.

Estatu multikultural batean bilakatzeko, Kanadan eratzen joan diren politika eta legedi guztiak eraginkorrak izan diren arren, ez zuten gatazka sozial guztiekin amaitu. Izan ere, aniztasunaren ondorioz, sozialki sortzen diren gatazkak ugariak dira, pentsamendu edo ohitura desberdinak direla medio³¹.

Horrenbestez, honen aurrean, Kanadako Auzitegietan, aniztasunak dakarren gatazka sozialei irtenbide bat emateko tresna juridiko bat garatu eta hedatzen da: *Reasonable Accommodation* (arrazoizko moldaketa) izenekoa. Ruiz Vieytez-en hitzetan, auzitegiek zentzuzko egokitzapena erabiltzen dute Kanadako edo Quebec-eko eskubide eta askatasunen gutunean aitortutako eskubideetako baten erabilerari eragiten dion diskriminazioarekin amaitzeko edo

²⁹ “*Canadian Multicultural Act*”, R.S.C., 1985, c. 24 (4th Supp.) “*An Act for the preservation and enhancement of multiculturalism in Canada*” (eguneratua 2023/04/20; azken eraldaketa, 2014/04/01). Erabilgarri: <https://laws-lois.justice.gc.ca/eng/acts/c-18.7/page-1.html>. (azken kontsulta, 2023/06/05).

³⁰ Sauca Cano, J.M., (2010). “Aportaciones de la comisión Bouchard Taylor al modelo intercultural de Quebec”, *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 7. Zenbakia, 451- 456 orrialdeak.

³¹ Gutunaren 27. artikulua eraginkortasunak sortzen dituen arazoetan sakontzeko, ikus: Oliveras Jané, N. (2001), 249-273 orrialdeak.

hau saihesteko. Beraz, jurisprudenzian jatorria duen nozio juridikoa da eta zeharkako diskriminazioak ekiditeko eskubidean oinarritzen da³².

Estatuan sortu ziren politika eta legedi hauetaz gain, probintzia bakoitzak legedi propioak onartu zituen multikulturalismoaren aurrean. Lehendabizi, azpimarratzekoa da aitzindari modura, 1962 urtean onartzen den *Ontario's Human Rights Code*-a; Ontario izanik, beraz, diskriminazioaren aurkako legedia onartzen duen lehen probintzia. Gaur egun indarrean dagoen kode honek, zehazki, arrazarekiko, kolorearekiko edota genero-identitateagatikoak diskriminazioak debekatu eta zigortzen ditu. Ontarioko Giza Eskubideen Batzordeak³³ kodearen aplikapena kudeatzen du, eta Ontarioko Giza Eskubideen Auzitegiak betearazten du.

3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA

3.1. KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA

Esan dugun bezala, Kanada aitzindaria da munduan kultur-aniztasuna kudeatzeko politikak eta neurriak aurrera eramaten. Zentzu honetan, arazoizko moldaketaren tresna azaltzea ezinbestekoa da, Kanadako jurisprudentziak teknika honen erabilpenari bultzada eta garapena egin baitzuen.

Arrazoizko moldaketa (*Reasonable Accommodation*) kulturen arteko gatazkei irtenbide bat emateko tresnetako bat da. Azpimarratzekoa da tresna honek berebiziko garapen eta erabilera Kanadan izan duela. Arrazoizko moldaketak sistema gizabanako guztientzat bidezkoa izatea bermatzen du, oinarritzko eskubideak errespetatuz. Tresna honek, Kanadako erakunde publiko zein pribatuak, gutxiengo sozialen praktika erlijioso eta kulturalera egokitzea bultzatu egin ditu. Beti ere, noski, praktika horiek, gainontzekoen eskubide eta askatasunak eta ordenamendu juridikoko printzipio nagusiak urratzen ez dituzten heinean. Horrenbestez,

³² Ruiz Vieyetez, E. J (2010). "Prólogo". Bouchard, G.-Taylor, C., *Construir el futuro. El tiempo de la reconciliación*, Ikuspegi, Zarautz, 7-19 orrialdeak. Autore honek adierazten duenez: "Los tribunales utilizan el acomodo razonable para poner fin o evitar una discriminación que afecta al ejercicio de uno de los derechos reconocidos en las Cartas canadiense o quebequesa de derechos y libertades. Es, por tanto, una noción jurídica de origen jurisprudencial que se fundamenta en el derecho a la no discriminación." (11-13 orrialdeak).

³³ Ontarioko Giza Eskubideen Batzordearen orrialde nagusia. Eskuragarri:: <https://www.ohrc.on.ca/en>. (Azken kontsulta, 2023/06/03)

arrazoizko moldaketa eskubide eta askatasun guztiak berdintasunean babestea oinarritzen da, bereziki, gutxiengoaren kontzientzia askatasunaren errespetua bermatuz³⁴.

Arrazoizko moldaketaren helburu nagusia zeharkako diskriminazioa³⁵ ekiditea da. Zuzeneko diskriminazioa identifikatzea eta ekiditea ez du zailtasunik. Beranduago ikusiko dugun bezala, zuzeneko diskriminazioa guztiz debekatuta dago Kanadan, ezin daitekeelako sexu, adina, erlijio edota arrazagatik, besteak beste, diskriminatua izan eta beraz horrelako diskriminazio bat egikaritzea helburu duen arau edo erabaki bat legez kontrakoa litzateke. Zeharkako diskriminazioa identifikatzerako orduan zailtasun haundiagoak sortzen dira. Gerta daiteke arau edo kontratu baten xedapenaren bat kolektibo zehatz bat diskriminatzeke helbururik ez izatea, baina bere aplikazioan talde zehatz bati eragitea modu negatibo batean (adibidez, lanean ikur erlijioso nabariarik ez eramateko debekua). Kasu horretan zeharkako diskriminazio bat genuke. Araua edo kontratua ez litzateke legez kontrakoa baina bere efektuak, nahiz eta zeharka, diskriminatzaileak dira. Horrelako suposamenduetan, arrazoizko moldaketak, zeharkako diskriminazioa ekiditeko eta diskriminatuak babesteko tresna da.

Oinarrizko eskubide baten urraketaren aurrean erabiltzen den tresna judicial hau Kanadako integrazio-politikaren barruan funtsezko elementua da³⁶. Bere jatorrian, hurrengo epigrafean ikusiko dugun moduan, lan-arloan aplikatzen da (lan-emailea langilearen betebeharrerlijiosoetara egokitu behar da, beti ere ez baldin bada jasangaitza den zama bat berarentzat), baina gero beste eremu batzuetara hedatuko zen, adibidez herritarrak eta administrazioaren arteko harremanetara).

³⁴ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), "El interculturalismo Quebequés en la encrucijada. De la crisis de los acomodamientos razonables a la comisión Bouchard-Taylor", *Revista de Estudios Políticos*, 150 zenbakia, 175-223 orrialdeak. Nagusiki, testuaren bigarren atala: II. Los acomodamientos razonables, "1. Origen y desarrollo de acomodamiento razonable. Los acomodamientos religiosos a los inmigrantes" (181-186 orrialdeak).

³⁵ Borges Blázquez, L. (2011), "Derechos e integración: el acomodo razonable como instrumento para la igualdad material", *CEFD (Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho)*, 23. Zenbakia, 55-57 orrialdeak.

³⁶ Esteban Sánchez, V. - López Sala, A. (2009) "La crisis de los acomodamientos razonables en Quebec: la Comisión Bouchard-Taylor", *Revista Internacional de Filosofía Política*, 33. zenbakia, 190-209. orrialdeak. Zehazki, "Acomodamientos razonables" atala, (194-196. orrialdeak).

3.2. JATORRIA

Arrazoizko moldaketen lehendabiziko aztarnak Estatu Batuetan aurkitzen ditugu³⁷. Estatu Batuetako 1964-ko Eskubide Zibilen legean³⁸ lan eremuko aukera berdintasun eta diskriminazio eza kontzeptuak³⁹ aldarrikatzen dira. Hala ere, Eskubide Zibilen Legedian diskriminazioa debekatzen zen arren, ez zen arrazoizko moldaketa burutzeko betebeharren inguruko aipamenik. Beraz, eman zitezkeen zeharkako diskriminazioei aurre egiteko ez zegoen tresna edo arau zehatzi eta ez zen finkatzen zein mugaraino eraldatu behar ziren lan-baldintzak.

Zehaztasun falta honen aurrean, 1966-an EEOC-ak⁴⁰ (Estatu Batuetako Enplegurako Aukeren Garapenerako Batzordea) zenbait gomendio (*guidelines*)⁴¹ argitaratu zituen. Gomendioetan enpresaburuek langileen zentzuzko behar erlijiosoak errespetatu behar zituztela adierazten zen, beti ere honek negozioaren jardueran pisu jasangaitz bat (*undue hardship*) suposatzen ez baldin bazuen⁴². Gomendio honek ez zuen inolako efektu juridiko loteslerik, baina arrazoizko moldaketaren aplikapenaren defentsa eta sustapena bultzatzen zuen.

³⁷ Intxaurre Vitorica, J. R. (2016), 223- 226 orrialdeak.

³⁸ *Ibidem*, 237- 238 orrialdeak.

³⁹ *The Civil Rights Act of 1964*. Title VII (703. sekzioan), “Equal employment opportunity”. Titulu honek, arraza, kolore, erlijio, sexu eta jatorri naizonalagatiko lan-diskriminazioa debekatzen du. (azken kontsulta, 2023/05/30)

⁴⁰ *U.S. Equal Employment Opportunity Commission EEOC Regulations*. Eskuragarri: <https://www.eeoc.gov/eeoc-regulations>.

Code of Federal Regulations. Title 29- Labor. Volume 4. Part 1608—affirmative action appropriate under title vii of the civil rights act of 1964, as amended. 1608.1 Statement of purpose. “(a) Since the passage of title VII in 1964, many employers, labor organizations, and other persons subject to title VII have changed their employment practices and systems to improve employment opportunities for minorities and women.” (2020/07/01 argitaratua). (Azken kontsulta, 2023/05/25) Eskuragarri: <https://www.govinfo.gov/content/pkg/CFR-2020-title29-vol4/xml/CFR-2020-title29-vol4-part1608.xml>.

⁴¹ Ikus: Borges Blázquez, L. (2011), 49-53 orrialdeak.

⁴² Adibidez: U.S. Equal Employment Opportunity Commission. *Code of Federal Regulations. Title 29-Labor. Volume 4. part 1605—guidelines on discrimination because of religion* § 1605.2. Reasonable accommodation without undue hardship as required by section 701(j) of title VII of the Civil Rights Act of 1964. “(a) Purpose of this section. This section clarifies the obligation imposed by title VII of the Civil Rights Act of 1964, as amended, (sections 701(j), 703 and 717) to accommodate the religious practices of employees and prospective employees.” (2020/07/01 argitaratua): Eskuragarri: <https://www.govinfo.gov/content/pkg/CFR-2020-title29-vol4/xml/CFR-2020-title29-vol4-part1605.xml>

1971an Estatu Batuetako Auzitegi Gorenean *Dewey v. Reynolds Metal*⁴³ epaia eman zen⁴⁴. Bertan, Auzitegi Gorenak ez du inolako adierazpenik egiten Eskubide Zibilen Legearen enpleguko eskubideen atalak arrazoizko moldaketarako betebeharra sortzen duenaren inguruan. Hori dela eta, momentu horretan, agerian uzten da, arrazoizko moldaketarako betebeharra ez zegoela legez babestuta, gomendio hutsa zela baizik. Horrenbestez, auzitegiak ez zuen enpresaburua arrazoizko moldaketa aplikatzera behartu.

Epai honen edukiaren aurrean erreakzio modura eta langileen kontzientzia-askatasuna modu egokian babestearren, Estatu Batuetako Eskubide Zibilen legearen VII Titulua erreformatzen da arrazoizko moldaketa barnebilduz.

Modu honetan, Estatu Batuetako legedia izan zen arrazoizko moldaketaren praktika juridikoa lan eremuan onartu izan zuen lehenengo, 1971 urtetik aurrera, alegia. Honen ostean, urte batzuk beranduago, Kanadan jaso eta zabaldu egiten da 80 hamarkadatik aurrera bere jurisprudentiaren bitartez⁴⁵.

3.3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA KANADAN: AIPAMEN BEREZIA SIMPSON SEARS KASUARI

Kanadan arrazoizko moldaketaren lehen aplikapen praktikoa Auzitegi Gorenak 1985an emandako sententzia baten bitartez izan zen, *Ontario Human Rights Commission and Theresa O'Malley (Vicent) and Simpson-Sears*⁴⁶ izenarekin ezaguna den kasuan hain zuzen ere. Bere garrantzia dela eta, epai honen edukiaren azterketa berezi bat burutuko dugu.

⁴³ *Dewey v. Reynolds Metals Company. United States District Court, W.D. Michigan, S.D. Nov 5, 1968. 291 F. Supp. 786 (W.D. Mich. 1968)*. Eskuragarri: <https://casetext.com/case/dewey-v-reynolds-metals-company> (azken kontsulta, 2023/06/04)

⁴⁴ Epai honen inguru, Intxaurbe Vitorica, J. R. (2016), 242-243 orrialdeak.

⁴⁵ Borges Blázquez, L. (2011), 53-55 orrialdeak.

⁴⁶ *Ont. Human Rights Comm. v. Simpsons-Sears. Supreme Court Judgments. 1985-12-17. [1985] 2 SCR 536* kasua. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/101/index.do> (azken kontsulta, 2023/06/12).

Kasuan bi subjektu ditugu, *O'Malley* langilea eta *Simpson-Sears* enpresa *O'Malley* errekurtsogileak jasandako enplegu-baldintzen diskriminazioaren ondorioz salaketa bat jarri zuen bere enpresaren (*Simpson-Sears-en*) aurka.

Errekurtsogilea 1971 urtean kontratatua izan zen *Simpson-Sears* enpresagatik, ostiral arratsaldeetan eta zapatuetan lan egiten zuelarik. 1978ko urrian, demandatzailea “Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista”-ren kide bihurtu zen. Fede honetan, printzipio garrantzitsua da larunbatean atsedean zorroztza gordetzea. Bere fede berriaren printzipioak jarraitua, langile honek enpresari larunbatean atsedena izatea eskatu zion bere erlijio-askatasuna errespetatzeko.

Enpresaren gerenteak, *Burleigh* jaunak, larunbatetan lan egitea kontratuz bete beharreko baldintza bat zela adierazi zuen eta honen ez betetzea kaleratze arrazoia zela. Horrenbestez, urriaren 20ko astea bere azkenengo astea izango zen enpresarentzat lan egiten. Hala ere, urriaren 20an, *Burleigh* jaunak bulegora deitu eta bertan hurrengo kontratua sinatu zuten bi alderdiak. Bertan zera esaten zen:

“On Friday, October 20, 1978 Mrs. Therese O'Malley was officially removed from full time status with Simpsons-Sears Kingston and subsequently re-hired on a contingent basis. This action was required as Mrs. O'Malley indicated she would no longer be available for work on Saturdays.

When Mrs. O'Malley started working for Sears on August, 1971 she was fully aware of the need for her to work on Saturday as a condition of her employment. This situation has continued to her present situation where she has been working since August, 1975 in Department 17/31.

*She first brought the situation to our attention on Tuesday, October 10, 1978. At that time she informed us that she would not be available Saturday October 14 although she was scheduled to be present. **She was advised that this could not be allowed on a regular basis as it would be preferential treatment not offered to all our other sales staff.**”*

*Mrs. O'Malley and myself discussed the possibility of her resigning from full time employment with Sears. At that time Mrs. O'Malley suggested she would want to resign. However, when I discussed the situation with her on Friday October 13 she indicated that **she did not choose to resign**. At that time I indicated we would be required **to terminate her services** then on Friday, October 20, 1978, as **she could not fulfill the requirements** of the job.*

*On Friday October 20 Mrs. O'Malley was once again asked if she had reconsidered and would be available on Saturdays. When she indicated **she had not we proceeded with the termination.***

*During the time Mrs. O'Malley was employed by the Kingston store she proved to be a satisfactory saleslady. In view of her length of service and **not wishing to create an undue hardship** we offered her **contingent employment** which she readily accepted.*

At the same time, without any guarantees, we indicated we would consider her for any jobs she might be suitable for and could accommodate her personal needs.

The situation is somewhat unfortunate from Mrs. O'Malley's point of view as she has been with the company for a good length of time. However this action is necessary to ensure proper staff availability consistent with departmental needs.

I have discussed the above with Mrs. O'Malley over our series of conversations.”⁴⁷

Kontratuan hurrengokoa adosten dute: alde batetik, lanaldi partzialeko lana eskaintzen dio gerenteak, hurrengo astetik aurrera hasiko zena. *O'Malley* andereak eskaintza onartu zuen eta lanaldi partzialeko langilea bilakatu zen. Era berean, gerenteak erabaki zuen demandatzailea beharrezkoa zen beste lan batzuetarako kontuan hartuko zuela.

Azpimarratzekoa da, aurretik eskatutako orduen erdia lan egiten zuela eta horrek diru-sarrera eta onura osagarriak murriztu zizkiola. Are gehiago, gerenteak beste lan batzuetarako *O'Malley* anderearekin hitz egin zuen, aktan adierazi zuen bezala. Hala ere, eskaini zizkion lanpostu guztiak, bat izan ezik, zapatuan lan egitea eskatzen zuten.

O'Malley andereak jasandako lan baldintza kaltegarriak kontuan hartuta, enpresaren aurka demanda bat jartzea erabaki zuen. Demanda honen oinarri juridikoa bezala, Ontarioko Giza Eskubideen Kodeko, 4(1)(G)⁴⁸ artikulua⁴⁹ aipatu zuen. Artikulu honek zehazten du ezin daitekeela langile bat enplegu-baldintzekin diskriminatu, arraza, sinesmen, kolore, adina,


⁴⁷ *Ibidem*. 4. puntuan kontratua isladatzen da. 541 orrialdea.

⁴⁸ *Ibidem*. 539 orrialdea.

⁴⁹ C 340 Ontario Human Rights Code. (1980). Kodearen 4.1.g artikulua: “No person shall, discriminate against any employee with regard to any term or condition of employment, because of race, creed, colour, age, sex, marital status, nationality, ancestry or place of origin of such person or employee.” . Kodea eskuragarri: <https://digitalcommons.osgoode.yorku.ca/cgi/viewcontent.cgi?referer=&httpsredir=1&article=1846&context=rso> (azken kontsulta, 2023/06/10).

sexua, egoera zibil, nazionalitate edo jatorria dela eta. *O'Malley* andreak jarritako demanda lehen instantziako auzitegiak ezetsi egin zuen. Hori dela eta, *Divisional Court*⁵⁰-en aurrean aurkeztu du kasua. Auzitegi honek ere errekurtsioa ezetsi egiten du eta *Provincial/Territorial Court of Appeal-en*⁵¹ helegitea aurkeztu du, honek ere helegitea ezeztatu zuelarik.

Aurreko auzitegiek adierazi zuten, Ontarioko Giza Eskubideen Kodean ez dira enpresa batek enplegatu baten erlijio-praktiketara egokitzeko bete beharko lituzkeen mugak zehazten. Horrenbestez, kasu honetan kontsideratzen dute enpresak diskriminazioa “nahigabe burutu duela” eta kodean ez denez nahigabeko diskriminazioa saihesteko debekurik ezartzen⁵², demanda ezeztu dute. Babes-klausula hori zehaztuta ez egoteak, legegileak nahigabeko edo zeharkako diskriminazioak debekatzeko borondaterik ez zuenaren adierazle zen. Auzitegiak argudiatzen zuen, zuzeneko eta nahitazko diskriminazioa_egon zela frogatzea ezinbestekoa zela legediak enplegatua babes dezan⁵³.



Kanadako Gobernuaren orrialdeak eskaintzen duen egitura judicialaren eskema

Demandatzaileak helegite-errekurtsioa aurkeztu du azken erabakiaren aurrean. Helegitea 1982ko azaroaren 1-ean onartu egiten da, eta, ondorioz, Kanadako Auzitegi Gorenean

⁵⁰ *Divisional Court*-a, Kanadako Justizia Auzitegi Nagusiaren adarretako bat da (Superior Courts), apelazio-azitegi aktiboenetakoa, hain zuzen ere.

⁵¹ *Ont. Human Rights Comm. v. Simpsons-Sears*. (9 puntuan). “For these reasons I agree with the majority of the Divisional Court that an intention to discriminate is an essential requirement for a contravention of s. 4(1)(g) of the Code prior to the proclamation of the amendment”.

⁵²*Ibidem*. (8 puntuan) “The question of whether it would be desirable to prohibit under some circumstances practices that unintentionally discriminate for reasons that are prohibited is not for the Court to decide.”

⁵³ *Ibidem*. (8 puntuan).

(*Supreme Court of Canada*) aztertu egiten du kasua. Auzitegi Gorenaren aurrean demandatzaileak mantendu egiten duen ideia da aurreko auzitegiek Ontarioko *Human Rights Code*-ko 4.1.g artikulua modu egokian ez dutela interpretatu⁵⁴.

Auzitegi Gorenak enpresaren asmoaren edo borondatearen (nahitaezkoa edo nahigabekoa) inguruko azterketa egiten du. Asmoaren froga egotea zigor-arloan ezinbesteko baldintza den arren, ez litzateke, diskriminazioa ezabatzerako orduan, giza eskubideen legedia interpretatzeko faktore gidaria izan beharko⁵⁵. Auzitegi honek argi uzten du beheko auzitegiek huts egin⁵⁶ zutela diskriminatzeko asmoa beharrezko froga-elementua zela zehaztean⁵⁷. Hau kontuan hartuta, auzitegiak bereizketa bat burutzen du zuzeneko diskriminazioaren eta enpleguarekin lotutako ondorio kaltegarriengatik diskriminazioaren artean⁵⁸.

Alde batetik, zuzeneko diskriminazioa ematen dela dio, enpresari batek diskriminatzen duen praktika edo arau bat burutu egiten duenean; adibidez enpresa batek adierazten duenean bere langileriaren barruan ez dagoela emakumerik edota pertsona katolikorik, besteak beste. Zuzeneko diskriminazioa ematen den kasu guztietan, legea zuzenean urratzen duten kasuak direla dio auzitegiak⁵⁹. Are gehiago, zuzeneko bereizkeria egon dela frogatu egiten denean, enpresariak ezarritako arauaren gaineko babes judiziala justifikatu behar du eta hau egon ezean, zuzenean baliogabetu daiteke⁶⁰.

⁵⁴ *Ibidem*. (10 puntua) “*The appellant contended that the Court of Appeal was in error in holding that proof of an intention to discriminate on a prohibited ground of discrimination is essential to a finding that s. 4(1) of the Ontario Human Rights Code has been contravened and further that the Court of Appeal erred in failing to hold that the onus of proving business necessity and reasonable accommodation is on the employer.*”

⁵⁵ *Ibidem*. (13 puntua) “*What appears to me to have occurred in this case is a concern with "motive" as if it was being differentiated from "intent" for criminal law purposes. Intent is not, however, an issue under s. 3 of the Human Rights Code.*”

⁵⁶ *Ibidem*. (14 puntua).

⁵⁷ *Ibidem*. (13 puntua).

⁵⁸ Ondorio kaltegarriengatik diskriminazioa, aurreko auzitegiek “nahigabeko diskriminazio” deitzen dutena da. Are gehiago, zeharkako diskriminazioa litzateke.

⁵⁹ *Ont. Human Rights Comm. v. Simpsons-Sears*. (18 puntua).

⁶⁰ *Ibidem*. (23 puntua).

Beste alde batetik, zeharkako diskriminazioaren kontzeptua zehazterakoan, arazoak sortzen dira. Arrazoi komertzialak direla medio, enpresari batek arau bat ezarri dezake. Arauaren inguruko arazoak ondoren sor daitezke. Bereziki, araua lehendabiziko itxuran, neutrala izan daitekeelako eta langile guztiei berdin aplikatuko zaiena. Hala ere, diskriminatzailea den efektua izan dezake langile baten edo talde batengan. Izan ere, langile edo talde horrengan ezaugarri bereizgarriak, betebeharrak, zehapen edo baldintza murriztatzaileak ezarri ditzake “arau neutral” horren aplikapenarekin, beste kide batzuegan eraginik ez dutenak, alegia. Kasu honetan, auzitegiak zehazten du, araua ez litzatekeela zuzenean deuseztatuko (zuzeneko diskriminazioan bezala). Hala ere, arauak eragina izan duen pertsona edo taldea kontuan hartuko litzateke eta beharrezkoa izango litzateke enpresak egokitzapen-neurriak bermatzea⁶¹.

Zentzu honetan Ontarioko Giza Eskubideen Kodearen Ikerketa Batzordeko kidea izan zen *Ratushny* Irakaslearen adierazpen batzuei *aipamen* egiten zaie epaian⁶²: hauetan adierazi zuen Ontarioko Giza Eskubideen Batzordeak ez zuela demandatzailea egokitzeko beharrezkoak ziren urratsak hartu⁶³. Modu berean, adierazten du Auzitegi Gorenak emandako interpretazioaren aurrean, lan-arau batek diskriminazioa eragin duela frogatzen denean, enpresariari dagokiola enpleguaren erlijio-premiak egokitzeko arazoizko moldaketaren aplikapena burutzea, negozioa bideratzerako orduan zailtasun handirik eragiten ez duen heinean. Hala ere, Kanadako legedian ez dago honen inguruko legezko oinarririk⁶⁴.

⁶¹ *Ibidem*. (22 puntua).

⁶² *Ibidem*. (6 puntua): “(1) Assuming (as in this case) that a general employment condition is established without a discriminatory motive and for legitimate business reasons, can there be discrimination under the Ontario Human Rights Code where that condition applies equally to all employees but has the practical consequence of discriminating against one or more of those employees on a prohibited ground such as creed? (2) If so, and if the general employment condition has such a practical consequence, how far must an employer go in accommodating the religious beliefs of such an employee in order to avoid a contravention of the Code?” (Lehendabizi, enplegu-baldintza orokor bat ezarri egiten denean arrazoi diskriminatzailearik gabe, Ontarioko Giza Eskubideen Kodearen arabera, enplegu horietako bat diskriminatua izan daiteke baldintza orokorraren ondorioz? Are gehiago, lanaren ondorioz diskriminazioa ematen bada, ze mugarekin egokitu beharko litzateke enpresa, enpleguaren erlijio-sinesmenetara egokitzeko? Horrenbestez, enplegu-baldintza orokorra enpleguaren sinismenekin bateraezina zela jakin ondoren, zentzuz jokatu ahal dute demandatuak?)

⁶³ *Ibidem*. (7 puntua).

⁶⁴ *Ibidem*. (20 puntua).

Inguruabar eta Ontarioko Giza Eskubideen Kodearen testuingurua kontua hartuta, auzitegiak honako hau ondorioztatu zuen: “Batzordeak ez du bere betebeharra bete, hau da, demandatuak zentzugabekeriaz jokatu izan duela ezartzea, enplegu-baldintza orokorrak erlijioarekin bateraezinak zirela jakin ondoren demandatzailea egokitzeko hartu zituen urratsetan”⁶⁵. Are gehiago, enpresak, demandatzaileari konpentsazio kuota ordaindu behar ziola ezarri zuen. Hau da, enpleguaren lanaldi partzialeko enplegatua izan zenetik izandako irabazien batura, eta aldi horretan lanaldi osoko enplegatu gisa irabazitako zenbatekoaren aldea⁶⁶.

Sententzia honen aurretik, Kanadako legediak edozein erlijio jarraitzeko eta printzipioak betetzeko askatasun osoa bermatzen zen. Hala ere, erlijio-askatasunaren gainean mugak zeudenez, zailtasunak sortzen ziren eskubidea gauzatzeko edo interpretatzeko orduan⁶⁷. Sententzia honen bitartez, arrazoizko moldaketa Kanadako legediaren funtsezko elementua bilakatzen da.

Azpimarratzekoa da, sistema anglosaxoian jurisprudentziaren indarra handiagoa dela gainontzeko sistema juridikoekin alderatuz, hala nola gurearekin alderatzen badugu. Zuzenbide anglosaxoia edo *Common Law*⁶⁸-a auzitegiek egiten dituzten erabakietan oinarritutako lege sistema da. Honen bitartez, epaileek erabakiak oinarritzen dituzte estatuko printzipioetan, ohituretan edota jurisprudentzian. Horrenbestez, arrazoizko moldaketa bezalako figura Ipar Amerikatik eratorri izanak, sistema anglosaxoiaren ondorio izango litzateke.

Elementu honen hedapena Kanada osoan eman den arren, ez da probintzia guztietan modu berean onartu. Kultura eta eraentza propioa duen probintzia batetan arreta jarriko dugu, Quebec-en, hain zuzen ere. Quebec-eko gizarteak kultura aniztasunarekiko zein arrazoizko

⁶⁵*Ibidem.* (24 puntua).

⁶⁶ *Ibidem.* (29 puntua).

⁶⁷*Ibidem.* (21 puntua).

⁶⁸ Orellana Roncero, V. (2001). “El *common law* en Canadá: la regla precedente”, HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona, 329-337 orrialdeak.

moldaketarekiko izan duen jarrera aztertuko dugu eta honek ekarri dituen ondorioetan sakonduko ditugu.

4. ARRAZOIZKO MOLDAKETA QUEBEC-EN

4.1. QUEBEC-EKO KULTURA-ANIZTASUNA ZEHAZKI

4.1.1.HISTORIA

Quebec Kanadako probintziarik handiena da eta ezaugarri bereziak ditu, Estatu honen lurralde frankofonoa baita. Gaur egungo Kanada osatzen duten lurraldeak britainiar eta frantziarregatik kolonizatua izan ziren XVII mendean. 1756-1763 bitartean hauen arteko guda ematen da, britainiarrak garaile atera zirelarik eta egungo Kanadako lurraldeen gainean subiranotasuna izango dute. Frantziar kolonoak Quebec lurraldean kokatuak izango dira eta 1774ko Quebec-eko legea (*Acte de Québec 1774*)⁶⁹ onartzen denetik beraien berezitasunak errespetatuak izango dira: hizkuntza, erlijioa, zuzenbidea e.a.

Britaniar Koroaren menpe egondako urte guztietan, Quebec-eko nazionalismoa garatzen hasten da. Joera nazionalista honen arrazoia, franko-kanadarrek, gainontzeko Kanadarekin edota anglo-kanadarrekin dituzten desberdintasun nabarien gainean errotzen da⁷⁰.

Quebec-ek izan duen garapen historikoa aztertzea beharrezkoa da gaur egungo egoera ulertzeko.

Zentzu honetan, 1960 urtetik aurrera Quebec-eko gizartean garatzen hasi zen modernizazio eta sekularizazio prozesuarekin hasiko gara: *Revolution Tranquille* izena hartu zuena eta gaur egungo nazionalismoan eragina izan duena. Prozesu honetan Quebec-eko gizartearen pentsamolde aldaketa nabaria ikus daiteke, nazionalistak, franko-kanadartzat identifikatu beharrean, quebec-tarrak bezala bakarrik identifikatzen hasten direlako. Hau da, franko-kanadiar moduan identifikatzeak, Kanadako gutxiengoaren artean egotea esan nahi du. Quebec-

⁶⁹ *Acte de Québec 1774* (1774ko Quebec-eko legea). Lege honen bitartez, Bretania Handiak nazio kanadar frantsesari, bere hizkuntza, erlijioa eta kode zibila gordetzeko eskubidea eman zion.

⁷⁰ Gagnon, A.G. (2000), "Del Estado-nación al Estado multinacional: Quebec y Canadá frente a los retos de la modernidad", HH. AA. (Gutiérrez-Haces, T. koor.), *Canadá: un Estado posmoderno*, Asociación Mexicana de Estudios Canadienses, 65-69 orrialdeak; Castellá Andreu, J.M^a (2001), 45-52 orrialdeak.

etar moduan identifikatzeak, aldiz, gehiengo sozialak izatea bermatzen die Quebec-en barruan. Horrela, quebec-etarren nortasun berria finkatzen da⁷¹.

Nortasun honen adierazleak izango dira garai honetan onartutako zenbait arau eta sortutako hainbat erakunde; hala nola, *la Charte québécoise des droits et libertés de la personne* (Quebec-eko eskubide eta askatasunen gutuna), eta *Charte de la langue française* (Hizkuntza frantsesaren gutuna).

Alde batetik, gaur egun indarrean jarraitzen duen *la Charte québécoise des droits et libertés de la personne* (Quebec-eko eskubide eta askatasunen gutuna) 1975 urtean onartu zen⁷². Lege honek talde etnikoetako kideek beren bizitza kulturalari eusteko duten eskubidea onartzen du, gizabanakoen askatasunak aldarrikatzen ditu eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako errespetua ezartzen du.

Bestalde, 1977 urteko abuztuan *Charte de la Langue Française* (Hizkuntza frantsesaren gutuna) legea onartzen da⁷³. Lege honek frantsesa hizkuntza ofizial bakartzat aldarrikatzen du Quebec-en eta honen lehentasunezko erregimena probintziako erakunde publikoetan, bizitza ekonomikoan eta hezkuntzan arautzen du. Honen bitartez, frantsesari babes berezi bat eskaini nahi zaio ingelesarekiko bere superbizipena bermatzeko⁷⁴. Gaur egun gutuna indarrean jarraitzen du. Probintziak hizkuntza ikuskatzaileak ditu frantsesaren erabilera berrikusi eta kontrolatzeko.

⁷¹ Esteban Sánchez, V. - López Sala, A. (2009), 190-194 orrialdeak.

⁷² Ikus: “*La Charte québécoise des droits et libertés de la personne*”. Gaur egun Quebec-en indarrean dago. (berritua, 2023/03/15). Balore ofizialeko dokumentua da. Eskuragarri: <https://www.legisquebec.gouv.qc.ca/fr/document/lc/C-12>. (azken kontsulta, 2023/06/15).
Aurretik ikusi dugun bezala, Kanadako eskubide eta askatasunen legea, 1982. urtean argitaratu zen, eta Quebec-ekoa aldiz, 1975. urtean (7 urte lehenago).

⁷³ “*Charte de la langue française*”. Lehenengo artikulua hurrengokoa dio: “*e français est la langue officielle du Québec. Seule cette langue a ce statut. Le français est aussi la seule langue commune de la nation québécoise et constitue l’un des fondements de son identité et de sa culture distincte.*” (berritua, 2023ko martxoaren 15ean). Eskuragarri: <https://www.legisquebec.gouv.qc.ca/fr/document/lc/c-11> (azken kontsulta, 2023/06/07).

⁷⁴ Woehrling, J. (2001). “Choque de lenguas y políticas lingüísticas en Canadá y Quebec”. HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona 227-241 orrialdeak.

Estatu mailan, gaur egun indarrean dago 1985 urtean onartutako Hizkuntza Ofizialen Akta (*Official Languages Act*⁷⁵-a). Lege honek, ingelesa eta frantsesa Kanadako estatu federaleko hizkuntz ofizialak direla aldarrikatzen du.

Zentzu honetan, zenbait autoreek Quebec eta Euskadiren egoerak alderatu dituzte⁷⁶. Bi lurralde hauetan gutxiengo nazionalak aurkitzen ditugu eta beraien berezitasunak aldarrikatu eta babestu nahi dituzte. Kontuan izanda gizarte anitz bateko testuinguru batean kokatzen direla, non beste ikuspegi eta identitate batzuk ere topatzen ditugu, aniztasunaren kudeaketan politika eta irtenbide bereziak aldarrikatzen dituzte helburu bikoitz batekin: Estatu barruko gutxiengo bezala bere berezitasunak errespetatu daitezela eta, bestetik, bere gizartean dagoen aniztasun kulturala babestu eta sustatu berezko identitate hori galdu gabe.

4.1.2. AZTERKETA SOZIOLOGIKOA GAUR EGUN

Historikoki Quebec-en identitatea finkatu duten faktoreak indarrean jarraitzen dute gaur egun probintzian. Alde batetik, kolonia frantsesen jatorrizko kultura nagusi izaten jarraitzen du sozialki. Bestetik, betidanik Quebec-eko gizartearen parte izan den kultura anitzak mantentzen dira, eta baita haiek babesteko politika desberdinak ere.

Kolonia frantsesen eraginez jasotako kultura, *Statistics Canada*-ko⁷⁷ 2023-eko datuetan islatuta ikus daiteke. Quebec probintzian bizi diren 8.501.833 pertsonetatik, 6.909.570 pertsonen ama-hizkuntza frantsesa da eta 1.088.820 pertsonena, aldiz, ingelesa. Beraz,

⁷⁵*Official Languages Act* (R.S.C., 1985, c. 31 (4th Supp.)) (2023ko maiatzaren 3an berritua). Adibidez, legearen seigarren eta zazpigarren artikuluek diote, Kanadan argitaratzen diren lege testu guztiak, bi hizkuntzetan argitaratuak izan behar direla. Eskuragarri: <https://laws-lois.justice.gc.ca/eng/acts/o-3.01/> (azken kontsulta, 2023/06/06).

⁷⁶ López Basaguren, A. (2009), “De Québec al País Vasco. La construcción de la idea nacionalista”, *Foreign Policy*, 32. Zenbakia, 51-55 orrialdeak.

Ruiz Vieytez, E. J. (2010), 17-19 orrialdeak. Autore honek dion moduan “*en paralelo a ello, no puede pasarse por alto aquí un elemento trascendental que une en parte a las sociedades quebequesa y vasca. Ambas comparten una condición conflictiva histórica que expresa precisamente una diversidad que ha caracterizado ambos países. Por un lado, en el plano lingüístico, se trata de sociedades plurales. Por otro lado, son sociedades que comprenden proyectos nacionales o políticos divergentes entre sus propios ciudadanos.*”

⁷⁷ *Statistics Canada*. 2023. (taula). *Census Profile*. 2021 Census of Population. Statistics Canada Catalogue no. 98-316-X2021001. Ottawa. (Azken kontsulta, 2023/05/29). Eskuragarri: <https://www12.statcan.gc.ca/census-re-censement/2021/dp-pd/prof/details/page.cfm?Lang=E&SearchText=Quebec&DGUIDlist=2021A000224&GENDERlist=1,2,3&STATISTIClist=1,4&HEADERlist=0>. (Azken kontsulta data, 2023/06/01)

Kanada barruan frantsesa gutxiengo baten ama-hizkuntza bada (24 miloilek ingelesa dute ama-hizkuntza eta 4 bakarrik frantsesa), Quebec-en ordea, Ingelesa litzateke gutxiengo baten hizkuntza eta kultura.

Baina badaude Quebec-eko gizartea Kanadakoarekiko desberdin egiten dituzte beste ezaugarri kultural batzuk. Sinesmen erlijiosoak dira horietako elementu bat. Quebec-en eliza katolikoaren indarra aipagarria da⁷⁸. Eliza katolikoaren aztarnak ere frantziar kolonizazioaren ondarea dira. 2021eko *Statistics Canada*-ko datuak aztertuta, 5.385.240 pertsonen kristianismoaren jarraitzaileak dira (honen barruan, 4.472.555 pertsonak erlijio katolikoa jarraitzen dutelarik). 2.267.720 pertsonen, aldiz, ez dute erlijio sinesmenik. Quebec da Kanadako probintzia bakarra, herritarren erdia baino gehiago eliza katolikoko jarraitzaileak dituenak. Aldiz, *British Columbia* probintzian, biztanleen %52,1-a ez du erlijio-afiliaziorik⁷⁹ eta dutenen artean, sinesmen protestanteek Quebec-en baina pisu handiagoa dute. Desberdintasun kultural honen arrazoia, jatorri anglosaxoi eta frantziarraren kokatu daiteke.

Bestalde, azpimarragarria da Quebec-ek betidanik izan duen aniztasun kultural ugaria. Quebec-eko *Statistics Canada*-ko 2021eko datuak aztertuta, aniztasun kulturala agerian dago. Azpimarratzekoa da azkenengo 5 urteetako gizarte mugimenduak kontuan hartuta, 8.501.833 biztanletatik, 1.763.060 etorkinak direla. Horietatik, 24.945 pertsona Estatu Batuetakoak, 309.015 pertsona Europakoak, 302.010 pertsona Afrikakoak eta 332.925 pertsona Asiakoak. Ildo beretik, Kanadako Gobernuak egiten deun *Visible minority* taldea kontuan hartuta, Quebec-en 1.340.735 pertsona *visible minority* taldekoak dira (Txinatarrak, beltzak, arabiarrak, amerika latinarrak, besteak beste).

⁷⁸ *Statistics Canada*-ko orrialdean, “*The Canadian census: A rich portrait of the country's religious and ethnocultural diversity*” atalean hurrengokoa zehazten da: “*Quebec is the only province or territory where more than half the population reported being Catholic (53.8%). However, the proportion of the population who reported being Catholic has fallen considerably over the last 10 years in Quebec, as three-quarters (74.7%) of the Quebec population reported it as their religion in 2011.*” (Azken kontsulta, 2023/05/29). Eskuragarri: <https://www150.statcan.gc.ca/n1/daily-quotidien/221026/dq221026b-eng.htm>

⁷⁹ *Statistics Canada*-ko orrialdean, “*The Canadian census: A rich portrait of the country's religious and ethnocultural diversity*” azterketaren barruko, “The majority of the population of Yukon and British Columbia reported having no religious affiliation” atalean. (Azken kontsulta, 2023/06/04)

Era berean, jatorri indigenako pertsonak kopuru handia dugu Quebec-en. Biztanle guztien artean, 8.308.480 pertsonak jatorri indigena dute. Hauen barruan, 140.690 pertsonak *First Nations* jatorria dute. 20.510 pertsonak, Métis jatorria, eta 13.410 pertsonak *Inuit* jatorria.

Aniztasun honen aurrean, Quebec-eko botere publikoek aniztasuna kudeatzeko eta gutxiengoak integratzeko helburua dituzten politika bereziak garatu dituzte gizartean bizikidetzaren posible egiteko, Quebec-en gai honi aurre egiteko eredu berezi bat sortuz: kulturartekotasuna.

4.2. QUEBEC ETA KANADAREN ARTEKO TENTSIOA

Behin Quebec-en dagoen desberdintasun kultural bereizgarria aztertuta, agerian dago Quebec-eko biztanleak gutxiengo nazionalak direla. Gutxiengo nazionalak, talde nazional, etniko, erlijioso edo linguistiko oro, gainerako biztanleekin alderatuta talde txikiago bat osatzen dutenak dira, talde honetako kideek identitate-zentzu bera dutelarik⁸⁰. Quebec-eko biztanle frankofonoak gutxiengo nazionalak dira, aztertu dugun bezala, berriazko kultura, hizkuntza eta ohiturak dituztelako Kanadarekin alderatuta.

Gutxiengo nazionala izanda, historikoki Quebec-en eta Kanada estatuaren artean tentsio⁸¹ ugariak garatu izan dira. Tentsio honen jatorria gertakari desberdinetan antzeman daitezke, hala ere, guztien lotura desberdintasun kultural nabarian dago.

Lehenik eta behin, 1980 urtean kokatuko gara. Hamarkada honetan, Kanada eta Quebec-en arteko tentsioak areagotu egiten diren. Momentu honetatik aurrera, agerian uzten da, kanadiar-anglosaxoiek Kanadako federazioaren eta probintzien simetria zentralizatzailea babesten dutela. Quebec-tarrek, aldiz, botereen deszentralizazioa eta federalismo asimetrikoa bilatzen dute. Oinarri desberdindu honekin, talkak hasten dira.

⁸⁰ ACNUR-ek (Agencia de la ONU para refugiados) bere orrialde nagusian erabiltzen duen gutxiengo nazionalen definizioa. Eskuragarri: <https://www.acnur.org/que-hacemos/how-we-work/protegiendo-las-personas/grupos-minoritarios-y-pueblos-indigenas#:~:text=Se%20entiende%20por%20minor%C3%ADa%20cualquier,comparten%20un%20sentido%20de%20identidad.> (azken kontsulta, 2023/05/30)

⁸¹ Wences Simón, M.I. (2016), "Interculturalismo quebequense: ¿versión del multiculturalismo canadiense o modelo con estructura institucional propia?", *Convergencia: Revista de ciencias sociales*, 72. zenbakia, 118-126 orrialdeak.

Alde batetik, aurretik ikusi dugun bezala, 1971 urtean Trudeauak multikulturalismoaren politikak bultzatzen hasten da Kanada osoan⁸². Quebec-eko gobernuak, ordea, multikulturalismo eredu honetatik urrundu zen. Urruntzearen arrazoia politika horietan frankofonoen estatus berria aitortzen ez zela zen. Quebec-eko akademiko eta politikarien iritziz, multikulturalismoaren politiken eta, beranduago onartzen den, Eskubide eta Askatasunen Gutunaren atzean Kanadaren nortasuna sendotzeko eta Quebec-eko nazioaren existentzia ukatzeko estrategia zegoen.

Hori dela eta, 1982. urteko Kanadako eskubide eta askatasunen gutuna Konstituzioaren barneratzerakoan, Kanadako probintzia guztiek akta konstituzionala onartu zuten, Quebec izan ezik. Quebec-en aldarrikatzen zen Konstituzioa Quebec-eko lehenengo ministroaren onarpenik gabe bideratu zela (momentu horretan Lévesque zena). Gertakari hau federalismoaren ikuspegi zentralizatzailea sendotzearekin lotu zen. Egoera honek erabat areagotu zuen Kanada eta Quebec-eko arteko liskarra ere.

Gobernu zentralaren eta nazionalismo probintzialaren arteko gatazka islatuta ikus daiteke 1980. eta 1995. urtean Quebec-en emandako erreferendumetan⁸³. Erreferendum hauek, Quebec-eko independentzia lortzeko nahiarekin bideratu ziren. Hala ere, bi erreferendumen porrotaren ondoren, Quebec-eko nazionalismoa sakonki markatuta gelditu da. 1980 urtean % 60-ak independentziaren aurka bozkatu zuen. Hala ere, 1995. urtekoetan, desberdintasuna askoz txikiagoa izan zen, % 49,4-ak alde bozkatu zuen eta % 50,6-ak kontra. Bigarren honek izandako emaitzak bi lurraldeen arteko gatazka areagotu zuen.

Gertakari guzti hauek Kanada eta Quebec-en arteko tentsioaren eragileak izan dira. Hala ere, tentsio honek eragindako eztabaida garrantzitsu bat aztertuko dugu. Ikusi dugun bezala, bi lurraldeek kultura aniztasunak dakarren aberastasuna mantentzeko eta babesteko nahia erakutsi dute. Hala ere, babes hau bideratzeko, baliabide desberdinak erabili dituzte. Aurretik ikusi dugun bezala, Kanadak duen aniztasun kulturak eragindako gatazkak bideratzeko erabiltzen den tresna arrazoizko moldaketa da. Hala ere, tresna honen erabilera Quebec-en aztertuko dugu, Kanadaren ereduarekiko desberdintasunak baititu.

⁸² Ikus lan honen “2.5 Multikulturalismoa eta hau bermatzeko baliabide juridikoak” atala.

⁸³ Lopez Basaguren, A. (2016). “Demanda de secesión en Cataluña y sistema democrático. El proceso a la luz de la experiencia y comparada.” *Teoría y realidad constitucional*, 37 zenbakia, 163-185 orrialdeak.

4.3. ARRAZOIZKO MOLDAKETA APLIKATZEKO POLITIKA, QUEBEC-EKO KULTURARTEKOTASUNA ETA KANADAKO MULTIKULTURALISMOA

Kanada estatuan bermatzen den desberdintasunerako eskubidearen adierazle juridiko nagusienetariko bat arrazoizko moldaketa da, aniztasun kulturala eta berdintasuna bermatzen baititu, alegia⁸⁴. Jada aztertu dugun bezala, arrazoizko moldaketa aplikatzeko betebeharra, Kanadako berdintasuneko legediaren funtsezko elementuetako bat da, 1982. urtetik Kanadako multikulturalismoak babes konstituzionala onartzen duenetik⁸⁵.

Hala ere, desberdintasunareko eskubidearen babesa ez da Kanada osoan modu berean aldarrikatzen. 1988-an Kanadako Multikulturalismoaren Akta⁸⁶ (*Canadian Multiculturalism Act-a*) legean oinarrituta, erakunde federal bakoitzak bere jarduera bideratzeko betebeharra zuenez, probintzia bakoitzak egokipenak burutu zituen⁸⁷. Kasu honetan, aniztasun kulturala bermatzeko Quebec-ek aplikatzen duen politika aztertzeari ekingo diogu, Kanadaren politikarekiko desberdintasunak baititu.

Hasteko, hurrengo galderari erreparatuko diogu: zergatik Quebec-ek kultur-aniztasuna kudeatzeko eredu propioa hartzea erabakitzen du, jada Estatu mailan eredu bat baldin badago: hots, Kanadako multikulturalismoa?

Aurretik zehaztu dugun bezala, Quebec pertsonalitate berezia duen Kanadako probintzia da, berezitasun hau biztanleriaren kultura-nahasketa aberatsaren ondorioa da. Sauca Cano-k⁸⁸ dioen bezala, arrazoizko moldaketaren ezarpenak erresistentzia handiak jaso izan zituen Quebec-en. Kanadako kultura-aniztasunaren barruan, bere politikara egokitzen zen tresna

⁸⁴ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 178 orrialdea.

⁸⁵ Oliveras Jané, N. (2001), 246-248 orrialdeak.

⁸⁶ *Canadian Multiculturalism Act, S.C. 1988, c.31. (azken kontsulta, 2023/06/05)*

⁸⁷ Ruiz Vieytez, E. J. (2010), 14 orrialdea; Bouchard, G. (2014), "What is interculturalism" HH.AA. (Gagson, A.G. - Sauca J. M. koor), *Negotiating diversity: identity, pluralism, and democracy*, Peter Lang International Academic Publishers. Brussels. 191-222 orrialdeak. Eskuragarri: <https://library.oapen.org/bitstream/id/7a3a9394-6b77-4499-8f48-17bf6f6a1db8/9783035264425.pdf>

⁸⁸ Sauca Cano, J.M. (2010), 458-465 orrialdeak.

moduan ikusten zen, eta ez Quebec-eko egoerara, alegia. Quebec-tarrentzat, probintziaren nazio-berezitasuna desagitea bilatzen zuen tresna moduan ikusten zen.

Beraz, azpimarratzekoa da, multikulturalismoak bermatzen duen kultur aniztasunaren bultzadak mesfidantza sortu zuela hasieratik Quebec-eko biztanleriarengan. Beldur honen arrazoa, Ruiz Vieytez-ek⁸⁹ definitzen duen bezala, gizartean aurkituko litzateke. Autore honek adierazten duenez, Kanadan bermatzen den multikulturalismoak eta desberdintasunerako eskubideak, Quebec-en berezitasuna desagerraraztea ekar zezaketenaren ideia zabaldu zen gizartean. Multikulturalismoak Quebec-entzat eragin negatiboak sortu ditzakelaren beldurra areagotzen da; kultura sustatu beharrean, arriskuan jar dezakeelako politika honek.

Arrazoi hauengatik, Kanadan burutzen den multikulturalismotik, Quebec-ek kulturartekotasunaera jotzen du⁹⁰. Hau da, Quebec-en dagoen mesfidantzaren aurrean, erakunde publikoek kulturartekotasunaren ideia garatzen dute probintzia honetan, multikulturalismoa beharrean. Kulturartekotasunaren bitartez, Quebec-en integrazioa bideratzen da, kultura minoritarioen onarpena eta babesaren bitartez, baina quebec-eko frankofonoen identitate oinarria galdu gabe.

Beraz, Quebec-ek egiten duen kulturartekotasunaren eta multikulturalismoaren arteko bereizketa lurralde honen mesfidantzaren isla da Kanadako aniztasunaren inguruko politikekiko⁹¹. Zentzu honetan, kulturartekotasunaren eta multikulturalismoaren arteko desberdintasuna azaltzea garrantzitsua da ikerketarekin jarraitzeko.

Desberdintasun aipagarriena zera da, Kanadan gehiengo kulturalik ez dagoela adierazten duela multikulturalismoak, nolabait Estatu honen identitatea aniztasunak definitzen duelako. Quebec-eko kulturartekotasunak, aldiz, gutxiengo eta gehiengo arteko bereizketa egiten jarraitzen du. Bereizketa hau egitea funtsezkoa da Quebec-eko botere politikoentzat, lurralde

⁸⁹ Ruiz Vieytez, E. J. (2010), 15 orrialdea.

⁹⁰ Bouchard, G. (2014), 216 orrialdea.

⁹¹ *Ibidem*, 217-219 orrialdeak.

honetan “berezko” kultura bat dagoela azpimarratzen delako, babestu beharrekoa, modu berean, minoritarioa delako Kanada barruan.

Are gehiago, kulturartekotasunak kultura aniztasunaren kudeaketan helburu zehatz bat du, hala nola, batasuna, elkarreragina, integrazioa eta kultura komuna bilatzea gizarte osatzen duten pertsonak eta komunitateak partekatu dezaten. Quebec-tarrek, Kanadaren barruan, gutxiengoa osatzen dutenez, baztertuak izatearen edota kultura zatitzearen beldur izan dira beti. Horrenbestez, kulturartekotasunaren bitartez, kulturen arteko loturak eta kultura komunak garatu eta sortu nahi dira. Multikulturalismoan aldiz, talde etniko guztiak berdintasun maila berean ipintzen dira.

Beste ezaugarri bereizgarri bat da hizkuntzaren inguruan bi politikek hartzen duten jarrera. Kulturartekotasunean, integrazio prozesua burutzeko, frantsesa funtsezko elementua da. Bestalde, multikulturalismoan, integrazio prozeduran ez da alderdi linguistikorik azpimarratzen. Izan ere, garrantzitsua da kontuan hartzea, etorkinak, momentu jakin batean, bizimodua errazagoa egiteko, hizkuntza nagusia ikasteko nahia erakutsiko dutela; ingelesa, alegia. Quebec-eko frantsesaren kasua, oso desberdina da, hizkuntza babesa jasotzeko etengabeko borroka historikoa egon baita⁹². Ingelesa ez da inoiz frantsesaren moduan mehatxatuta egon, hori dela eta multikulturalismoaren aplikapenak ez du inoiz ingelesa “arriskuan” ipiniko, lehentasunezko hizkuntza izaten jarraituko duelako Kanadan. Agerian dagoenez, frantsesarekin ez litzateke berdina gertatuko, horrenbestez, kulturartekotasunaren bitartez, frantsesa ezinbesteko elementua bihurtzen da aniztasunaren kudeaketaren politikan.

Beraz, ikusi dugun bezala, kulturartekotasunak gehiengoan kulturarekiko inplikazio handia du eta beharrianekiko jarrera sentikorra adierazten du. Multikulturalismoak, aldiz, ezin du gehiengo kulturalari beharrianik eskaini, ez duelako gehiengo kulturalen eta gutxiengo kulturalen arteko mailaketarik burutzen. Behin desberdintasunak islatuta, Quebec-eko kulturartekotasunak izan dituen eraginak eta aplikapenak aztertuko ditugu.

⁹² Woerhling, J. (2001), 227-241 orrialdeak. Autore honek azpimarratzen duenez, 70. hamarkadatik aurrera antzematen hasten da, ingelesaren garrantzia frantsesarena gailentzen zuela. Hala nola, ingelesa edo frantsesa hitz egiten ez zuten etorkinen haurrak ingeleseko ikastetxetara bidaltzeko joera zegoen, Quebec-en bizi arren. Are gehiago, quebec-tarren bizitza ekonomikoan frantsesaren garrantzia erabat murriztuta aurkitzen zen.

Lehendabizi, Quebecoko kulturartekotasuna 1981 urteko “Quebectar izateko hainbeste modu” (*Autant de façons d’être Québécois*)⁹³ izeneko dokumentu batetan definitu zen ofizialki. Dokumentu honetatik azpimarratu beharreko puntuak bi dira. Alde batetik, Quebecoko herriaren definizioa egiten da, ezaugarri frantseseko nazio gisa⁹⁴. Bestetik, gutxiengoek kulturaren babes eta aitortpena ematen da. Honen bitartez, Quebecoko kulturartekotasunaren plana hurrengo puntuetan oinarritzen da: a) komunitate kulturalen mantentzea eta garapena ziurtatu nahi du, b) quebec-tar frankofonoen eta anglofonoen sentsibilizatu kultur-aniztasunaren inguruan eta c) Quebecoko komunitate kulturala bultzatu⁹⁵.

Bigarren, 90 hamarkadaren hasieran, bigarren dokumentu zuri (*white paper*) bat egiten da, “Quebec elkarrekin berreraiki” (*Au Québec pour vivre ensemble*)⁹⁶ dokumentu honen edukia garrantzitsua da ere kulturartekotasunaren kontzeptua ulertzeko. Laburbilduz: a) Quebec bizitza publikoko hizkuntza komuna frantsesa duen gizartea dela aldarrikatzen du, b) Quebec-ek gizarte demokratiko bat izanda guztien parte hartzea bermatzen da eta c) Quebec gizarte pluralista dela, kultura-ekarpenak onartzen dituenak, beti ere demokraziaren mugak errespetatzen diren heinean⁹⁷.

Beraz, ikusi dugun bezala, Quebec-en kulturartekotasuna onartzen da arrazoizko moldaketa aplikatzeko tresna gisa. Quebec-en gaur egun aplikatzen den kulturartekotasuna hiru osagaiaz

⁹³ “*Autant de façons d’être Québécois*”. “*Plan d’action à l’intention des communautés culturelles*” Komunitatearen kulturaren ekintza plan bat izan zen. Kultura-komunitateen eta integrazioaren ministerioak bere kulturarteko helburuak ezartzen ditu ekintza-plan hau argitaratuz.

Planaren inguruko informazioaren inguru: Dewing, M. - Leman, M. (2006). *Canadian multiculturalism*. Ottawa: Library of Parliament, Parliamentary Research Branch. Liburuaren 2.4 atala “Provincial and Territorial Multiculturalism Policies” ingurukoa, Quebec-en sakontzen du 2.4.6 atalean, 12. orrialdean. Eskuragarri: <https://acctfoundation.ca/wp-content/uploads/2020/04/Canadian-Multiculturalism-background-paper-3.pdf>

⁹⁴ Bouchard, G. -Taylor, C. (Commission de consultation sur les pratiques d’accomodement reliées aux différences culturelles) (2008). *Building the future: a time for reconciliation: report*. Eskuragarri: <https://numerique.banq.qc.ca/patrimoine/details/52327/1565995>. VI. kapituluan, “*Integration in equality and reciprocity*” izeneko. (Zehazki, 116-117. orrialdeak).

⁹⁵ Sauca Cano, J.M. (2010). (460. orrialdea).

⁹⁶ “*Au Québec pour vivre ensemble. Énoncé de politique en matière de migration et d’intégration*” Quebec elkarrekin berreraiki. 1990. urtean Quebec-en onartutako immigrazio eta integrazio politikako adierazpena izan zen. Quebec-eko gobernuak egindako dokumentua zen, legegintza-organoei eta iritzi publikoari informazioa emateko nahiarekin eginda. Ikus, Dewing, M., - Leman, M. (2006), 13 orrialdea.

⁹⁷ Sauca Cano, J.M. (2010), 458-459 orrialdeak.

osatuta dago⁹⁸: parte hartzea, elkarrekintza eta eskubideen babesa. Alde batetik, kulturartekotasunaren bitartez, herritarren parte hartzea sustatu nahi da bizitza publikoan, Quebec-eko funtsezko erakundeetan inplikatur. Bestetik, elkarrekintza lortu nahi da, herritarren arteko balore eta erreferentzia-puntu komunak aurkitzeko edota izaera zein balore trukeak elkarren artean bideratzeko. Hau da, komunikazioa sustatu nahi da herritar guztien artean. Azkenik, herritar guztien berdintasun bermatu nahi da.

4.4. QUEBEC-EKO ARRAZOIZKO MOLDAKETEN KRISIALDIA

80 hamarkadaren ostean, multikulturaltasun politikak eta arrazoizko moldaketaren Kanada aplikatuak izan dira aniztasun kulturala kudeatzeko tresna bezala. Estatu osoan hauen inguruko adostasuna zabala zen, baina Quebec-ek adostasun hau hautsi zen XXI mendearen hasieran⁹⁹. 2001 urteko irailaren 11ko gertakariak eragin aipagarria izan zuten beranduago etorriko zen krisian, gizartean segurtasunaren inguruko kezka eta desberdinarekiko mesfidantzazko testuingurua garatzen delako¹⁰⁰. Hala ere, krisialdiaren eztanda 2006an ematen da. Arrazoizko moldaketen inguruko desadostasunak prentsan isla izaten dute. Honek, arrazoizko moldaketa eztabaida publikoa bilakatzea eragiten du. Krisialdi honen hasiera, Quebec-eko auzitegietan agertzen hasi ziren kasu berezi ugariaren kritiken ondorioa izan zen, komunikabideetan hauen inguruan berri ematen da gizartean eztabaida sortuz¹⁰¹.

Quebec-en oihartzun handia izan zuen kasu horietako bat, 2006 urtekoa, *kirpan*-a ingurukoa izan zen¹⁰². *Kirpan*-a *Sikh* erlijioeko gizonetzko jarraitzaileek eramaten duten arma sinboliko bat da eta zapalkuntzaren eta bidegabekeriaren aurkako borrokaren sinbolotzat hartzen da. Ikur erlijioso hau gizonetzkoek txikitatik eraman behar dute soinean beti.

⁹⁸ Ikus Bouchard G. - Taylor, C. (2008). Txostenaren VI. kapituluua, “*Integration in equality and reciprocity*” izenekoa (zehazki, 114. orrialdean). Bertan Quebec-eko integrazio ereduaren gaineko informazioa eskuragarri (kulturartekotasunaren ingurukoa, alegia).

⁹⁹ Ruiz Vieytes, E. J. (2010), 29-31 orrialdeak. Bertan gertakarien kronologia ikus daiteke.

¹⁰⁰ Esteban Sánchez, V. - López Sala, A. (2009), 195. orrialdea.

¹⁰¹ Bouchard G., - Taylor, C. (2008). II. kapituluaren (“*Chronology of a crisis*”), B) atala “*The intensification of controversy (from may 2002 to february 2006)*” eta C) atala “*A time of turmoil (from march 2006 to may 2007)*”. Bertan emandako epai desberdinak antzeman daitezke. (50-58. orrialdeak).

¹⁰² Bouchard G., & Taylor, C. (2008). II. kapituluaren, C) atala “*A time of turmoil (from march 2006 to may 2007)*”, “*The kirpan or the “Multani affair”*”. (50. orrialdea).

Arazoa sortzen da Sijismoaren jarraitzaile den ikasle bati, Gurbaj Sing Multani-ni, eskolara *kirpan*-a eramatea debekatzen diotenean jolas-orduan egonik labana hau erori ostean. Erabaki hau Kanadako Marguerite-Bourgeoys Eskola Batzordera¹⁰³ eraman zen eta bertan erabaki zen baimena ematen zitzaiola ikur erlijioso hau eskolara eramateko, baldintza zehatz batzuk errespetatuz gero beti ere (hala nola, arropa azpian eramatea).

Kasua Quebec-eko Gorte Gorenaren (*Superior Court*) aurrera heldu zen. Auzitegi honek, baldintza eta neurri batzuk ezarri zituen *Kirpan*-a eskolara soinean eraman ahal izateko; hala nola, *Kirpan*-a uniformearen azpian eramatera behartuta zeudela, egurrezko zorro baten barruan joan beharko litzatekeela eta segurtasun handiz josia egon beharko litzatekeela. Hezkuntza agintariak auzitegiaren erabakia apelatu egin zuten eta kasua Quebec-eko Apelazio Gortera heldu zen. Gorteak *Kirpan*-aren erabilera ezeztatu zuen, arazoia hezkuntza agintariei emanez. Epai honen aurrean helegitea ipini eta kasua Kanadako Auzitegi Gorenera heltzen da¹⁰⁴.

Auzitegi Gorenak kasua aztertu egiten du Kanadako eskubide eta askatasunen gutuna eta Quebec-eko gutunean oinarrituz. Auzitegiaren iritziz, *kirpan*-aren debekuak ikaslearen erlijio-askatasunaren eskubidea urratzen du¹⁰⁵. Are gehiago, metalezko *kirpan*-a beste material batekin aldatu behar izatea erlijio sinesmenetara egokitzen ez dela dio eta, horrenbestez, tresna metalezkoa izan behar dela errespetatu behar dela. Era berean, auzitegiak

¹⁰³ *Centre de services scolaire Marguerite-Bourgeoys*, Kanadako Marguerite-Bourgeoys Eskola Batzordea, Kanadako Montreal-eko eskola kontseilua da, egoitza Montrealen duena.

¹⁰⁴ Kanadako Auzitegi Gorenak emandako epaia. *Multani v. Commission scolaire Marguerite-Bourgeoys*, *Supreme Court Judgments*, Quebec, 2006-03-02, [2006] 1 SCR 256. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/15/index.do> (azken kontsulta, 2023/06/06).

¹⁰⁵ *Multani v. Commission scolaire Marguerite-Bourgeoys*, *Supreme Court Judgments*, Quebec, 2006-03-02, [2006] 1 SCR 256. “*The argument that the wearing of kirpans should be prohibited because the kirpan is a symbol of violence and because it sends the message that using force is necessary to assert rights and resolve conflict must fail. Not only is this assertion contradicted by the evidence regarding the symbolic nature of the kirpan, it is also disrespectful to believers in the Sikh religion and does not take into account Canadian values based on multiculturalism.*” (71. puntuan) *Thus, there can be no doubt that the council of commissioners’ decision prohibiting Gurbaj Singh from wearing his kirpan to Sainte-Catherine-Labouré school infringes his freedom of religion. This limit must therefore be justified under s. 1 of the Canadian Charter.* (Auzitegi Gorenaren epaiaren 41. puntuan).

ondorioztatzen du *kirpan*-aren erabilera debekatzeak ondorio kaltegarriak eragin ahalko lituzkeela hezkuntzaren esparruan.

Horrenbestez, auzitegiaren ustez *Gurbaj Singhen* haurrari arrazoizko moldaketa aplikatuko litzaioke, Kanadako gizarteak askatasun erlijioso eta gutxiengo sozialekiko bermatzen duen errespetua bermatzeko. Beraz, aurreko guzti hau kontuan hartuta, auzitegiak adierazten du Quebec-eko Eskola Batzordeak hartutako erabakia ikaslearen erlijio-askatasunerako eskubidea urratzen duela.

Auzitegi Gorenak hartutako erabaki honen aurrean, Kanadako erakundeetan *kirpan*-aren erabilera baimenduta eta babestuta gelditzen da. Gizartearen zenbait alderdietatik erabaki hau bidegabekotzat jo zen, kolektibo honen erlijio-askatasuna bermatzearen hirugarrenen segurtasuna arriskuan jartzen zelako. Honetaz gain, Kanadako Auzitegi Gorenak Quebec-eko Apelazio Gorteak hartutako erabakia eraldatu egin izanda bi lurraldeen arteko tentsioa areagotzen du¹⁰⁶. Arrazoizko moldaketen aurkako korrante hau Quebec-eko eremu desberdinetan hedatzen da momentu honetatik aurrera: alor politiko, sozial eta kultural ugari ukitzen dituelarik.

4.5. KRISIALDIAREN ONDORIOAK

Quebec-en hedatu zen eztabaida sozial honek, ondorio garrantzitsuak izan zituen eremu desberdinetan; eremu politiko, sozial zein kulturean¹⁰⁷. Sozialki, komunikabideak baliatuta, gizartean informazio ugari hedatzen hasi zen arrazoizko moldaketen aurka.

Era berean, krisi hau eremu politikora hedatzen da. Kritika hauetaz baliatua eta desadostasuna instrumentalizatuz alderdi politiko berri bat agertzen da Quebec-en. Alderdi horrek Quebec-eko Ekintza Demokratikoa (*Action Démocratique du Québec/ADQ*)¹⁰⁸ izena hartzen du. Alderdi honek arrazoizko moldaketaren aurkako jarrera garbia azaltzen du, Quebec-eko gizartearentzat eraginkorra ez denaren ideia azalaraziz. Talde honek berebiziko

¹⁰⁶ Esteban Sánchez, V. - López Sala, A. (2009), 194-195 orrialdeak.

¹⁰⁷ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 190 orrialdea.

¹⁰⁸ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010). 192 orrialdea.

garrantzia izaten du Hérouxville-n¹⁰⁹, Maurice-ko herri txikia, 1300 biztanle inguru dituenak¹¹⁰. Etorikinik bizi ez den Quebec-eko herri horretan alderdi honen jarraitzaile ugari agertzen dira. Bertan kultur aniztasunaren aurkako jarrerak adierazten dira, adibidez *burka*-ren debekua planteatuaz. Herri honetan alderdi honek izan zuen arrakasta Quebec osora zabaltzearen beldurra hedatu zen, bereziki, 2007ko probintzi hauteskundeetara begira.

Quebec-eko egoera soziala aztertuta, probintzia hauteskundeetan gertatuko ziren ondorio kaltegarriak aurreikusi zituen *Jean Charest*-ek¹¹¹. Aurreikuspen honen aurrean, hauteskundeak baino aste batzuk lehenago, batzorde baten sorrera agintzen du; kultura desberdintasunekin lotutako arrazoizko moldaketen praktikei buruzko kontsula batzordea (*Commission de consultation sur les pratiques d'accommodement reliées aux différences culturelles*). Batzorde honen sorrera Quebec-eko krisialdiaren ondorio garrantzitsuenetako bat izan zen. Kontuan hartzekoa da lehenengo ministroak batzarra sortu zuela pil-pilean zegoen eztabaidarekiko inolako iritzirik ez emateko (hauteskunderi dagokionez)¹¹² eta baita gizartearen eztabaida hain kaltegarriari amaiera edo konponbide bat emateko¹¹³.

Gaur egun indarrean jarraitzen duen batzorde honek gobernuari gomendioak emateaz arduratzen da, arrazoizko moldaketen praktikak Quebec-eko gizartearen balioekin bat etor daitezkeen. Batzorde honen bitartez, lehenengo ministroak eztabaidan zegoen gai hain gatazkatsuen inguruko kritikekin amaitzea lortzen du¹¹⁴.

Batzordeak azterketa sakon bat burutzen du Quebec-en arrazoizko moldaketaren ingurukoa. Honetan, teknika honen erabileraren azterketa burutzen da eta baita gizartean honen inguru

¹⁰⁹ Bouchard G., eta Taylor, C. (2008).II. kapituluak, "Hérouxville's "life standards". 56 orrialdea.

¹¹⁰ *Ibidem*, II. kapituluak, "The Hérouxville bubble" atala. 75 orrialdea.

¹¹¹ John Jean Charest, Quebec-eko Partidu Liberalaren parte den politikoa eta abokatua da, Quebec-eko lehenengo ministroa izan zena 2003-2012 urteen bitartean.

¹¹² Esteban Sánchez, V. - López Sala, A. (2009), 195-196 orrialdeak.

¹¹³ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 194 orrialdea.

¹¹⁴*Ibidem*, 196-201 orrialdeak.

dauden pentsamolde desberdinak adierazten dira. Azken emaitza Bouchard-Taylor izeneko txostenean biltzen da¹¹⁵.

Berebiziko garrantzia izan zuen txostena aztertzeari ekingo diogu, krisialdiari amaiera emateko funtsezko elementu izan baitzen, krisialdiaren arrazoiak sakonki aztertuz, Quebec-eko gizartearen oinarriak kontuan harturik. Gainera, arrazoizko moldaketa ulertzeko buruturiko azterketa sakonena da, beste lurraldeetan ere erabilgarria dena esperientzia modura.

4.6. BOUCHARD TAYLOR TXOSTENA

4.6.1. AURREKARIAK

2007ko otsailaren 8-an, Jean Charest-ek Quebec-eko Talde Liberaleko Lehenengo Ministroak arrazoizko moldaketen praktiken inguruko batzordearen (*Commission de consultation sur les pratiques d'accommodement reliées aux différences culturelles*) sorrera azalarazi zuen. Batzordea sortu zuen Kontseiluaren aginduan zehazten zen honen betebeharrak hurrengoak zirela: a) Quebec-eko arrazoizko moldaketen praktiken balantze bat egitea; b) beste gizarte batzuen egoerak kontuan hartuta, Quebec-eko gatazkak aztertzea; d) gai horren inguruko azterketa sakona egitea, gizartean kontsulta zabala eginez eta e) gobernuari gomendioak ematea, arrazoizko moldaketen praktikak Quebec-eko aniztasun eta demokraziara egokitzeko¹¹⁶.

Batzordea sortzearen erabakia azkenengo urteetan Quebec-eko gizartean antzematen zen desadostasun sozialaren ondorioa izan zen¹¹⁷. Batzorde honek ekimen eta jarduera desberdinak antolatu zituen, besteak beste, batzorde aholkulari bat eratu zuen¹¹⁸. Batzorde

¹¹⁵ Bouchard-Taylor txostena izendatu zuten, txostenaren egileak Gerard Bouchard eta Charles Taylor quebec-tarrak izan zirelako.

¹¹⁶ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). 17 orrialdea.

¹¹⁷ Elósegui Itxaso, M. (2010). "El modelo de interculturalidad en el informe de la comisión Bouchard-Taylor para Québec". *Anuario De Derechos Humanos*, 11. bol., 129-164 orrialdeak.

¹¹⁸ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). 35-36 orrialdeak.

Aholkulari horretatik sortu zen testua *Etorkizuna eraikitzen (Building the future)* Gérard Bouchard eta Charles Taylor-ek bideratutako txostena da.

Batzordea hamazazpi pertsonak osatzen zuten. Hamazazpi kide horietako bi, Gérard Bouchard (historialari eta soziologoa) eta Charles Taylor (filosofoa) ziren. Bi intelektualak izendatuak izan ziren batzordearen txostena burutzeko, hots, “Etorkizuna sortzen: adiskidetzeko denbora, kultur desberdintasunarekin lotutako arazoizko moldaketen praktikei buruzko aholku batzordearen azken txostena” (*Fonder l’avenir: le temps de la conciliation, rapport final de la Commission de Consultation sur les Pratiques d’Accommodements Reliées aux Différences Culturelles*), alegia. Txosten honek, kontuan hartzen ditu Quebec-eko “Iraultza Lasai”-ren (*Revolutions Tranquille*) ondorioz, 70-eko hamarkadatik aurrera, auzian jartzen hasten den Quebec-eko integrazio soziokulturalaren egoera¹¹⁹.

Batzordearen sorreraren berria zein txostenaren argitalpena epealdi baketsua (*A period of calm*) izendatu egin zen unean ematen dira. Epealdi hau 2007 urtetik 2008 urtera arte iraun zuen¹²⁰. Beranduago antzeman denez, batzordearen sorrerak eta burututako ekintzek Quebec-eko gizartearen egoera erabat baketu zuten. Interes publikoan eraldaketa garrantzitsu bat eman zen; komunikabideek adierazi zituzten arazoizko moldaketen kritikak baztertuz joan ziren¹²¹. 2007 urtetik aurrera, Quebec-eko gizartearen interesa Batzordean oinarritu zen eta baita Batzordeak burutzen zituen kontsulta publiko guztietan ere.

Txostenean “Iraultza Lasai”-tik (*Revolutions Tranquille*-tik) 2008 urterarte egondako eraldaketa soziologikoak eta arazoen oinarriak aztertu egiten dira, Quebec-eko gizartearen ahotsa kontuan harturik (kontsulta publikoen bitartez) zein bestelako azterketekin. Hau kontuan hartuta, hurrengoak dira batzordeak hasiera batetik bilatzen zituen helburuak¹²²: a) Quebec-ek jarraitu duen bidea kontuan hartuta, gomendio eta analisi propioak biltzea, b)

¹¹⁹ Elósegui Itxaso, M. (2010), 134 orrialdea.

¹²⁰ Bouchard, G. -Taylor, C. (2008), 59 orrialdea.

¹²¹ *Ibidem*, 59 orrialdea.

¹²² *Ibidem*, 17 orrialdea.

gizartearen oreka eta konpromezua bilatzea, d) gizabanakoaren akzioa goraiatzeko saiatu ziren, kontzientzia eta erkidegoan duten parte hartzearen konpromezua areagotzeko, e) azterketa burutzerako orduan, kontuan hartzea, quebec-tarrek azkenengo hamarkadan izan dituzten hauteskundearen emaitzak, f) arlo publikoan ematen diren desberdintasun adierazpenak biltzea eta g) norbanakoen gogoetaren parte integrazio, berdintasun eta elkarrekikotasunaren arloko gaiak agerian jartzea.

Behin Batzordearen eta txostenaren jatorria zehaztuta, txostenaren edukian murgilduko gara.

4.6.2.EDUKIA

Txostena sortu izanaren arrazoiari erreparatuz, arrazoizko moldaketen krisialdian jartzen dute ikertzaileek arreta hasieratik. Txostenean bertan adierazten dutenez, analisia ulertzeko ezinbestekoa da aurrekariak eta krisiaren eragileak kontuan hartzea¹²³.

Hau aztertzeko, azken hamarkadak zenbait etapa desberdinetan sailkatzen dituzte: 1) Aurrekariak (1985eko abendutik¹²⁴, 2002ko apirilera), 2) Eztabaidaren areagotzea (2002ko maiatzetik, 2006ko otsailera) eta 3) Une baketsua (*A period of calm*) (2007ko uztailetik, 2008ko apirilera)¹²⁵. Jada aztertu dugunez, sailkapen hau burutua izan da Quebec-eko arrazoizko moldaketak jasandako krisialdia kontuan hartuta.

Krisialdiaren ezstandaren arrazoiak kontuan hartuta, txostenak egoera desberdinak aztertzen ditu. Alde batetik, batzordearen azterketek diote arrazoizko moldaketaren krisialdian 73 kasu nabarmenek eragin zuzena izan zutela (aurretik aztertu dugun *Kirpan*-aren kasua, besteak beste). Era berean, komunikabideen eragina ere azpimarratzen da krisialdi honen ezstandan. Azken honi dagokionez, batzordeak argi uzten du komunikabideek¹²⁶ arrazoizko moldaketen

¹²³ Bouchard, G. -Taylor, C. (2008), 60 orrialdea.

¹²⁴ *Ibidem*, 48 orrialdea. Aurretik azaldu dugun, Simpson-Sears kasua.

¹²⁵ *Ibidem*, 48-59 orrialdeak.

¹²⁶ *Ibidem*, 74 orrialdea. Batzordeak buruturiko inkesta desberdinen erantzunak aztertuta, azpimarratzekoa da 2007ko uztailean itaunduak izan ziren %55-ak uste zuela hedabideek gutxiengo erlijiosoekiko gehiegikeriazko erantzunak zituztela. Era berean, erantzunen %60-ak adierazi zuen hedabideek inplikazio handiago erakutsi beharko luketela gutxiengoak babesterako orduan.

inguruan egindako azalpen legala nahiko urrun gelditu dela errealitatetik¹²⁷ eta gizartean sortu den ezegonkortasun irregularra honen ondorio izan daitekeela.

Krisialdiaren eztagarri bezala, quebec-tarrek betidanik izan duten mesfidantza aztertu egiten du batzordeak. Ikusi dugunez, quebec-tarrek bere identitatea defendatu behar dutenaren ideia sustatu izan da botere publikoen aldetik. Honek, gutxiengoekin zuen harremanetan zailtasunak eragin zituen¹²⁸. Jada aztertu ditugun Quebec-en gatazkatsuak izan diren hiru eztabaidak: etorkinen integrazioa (multikulturalismoa onartu edo ez), hizkuntza (quebec-tar nortasunaren ezaugarri nagusia baita) eta nazionalismoa (Quebec-ek Kanadan duen garrantzia)¹²⁹.

Honen aurrean, krisialdian zehar sortutako ideia zein kritika desegokien azterketa eta zuzenketa ematen da txostenean. Hau lortzeko, Quebec-eko gizartean berebiziko garrantzia daukaten kontzeptuen zehaztasuna definitzen da. Alde batetik, txostenak; arrazoizko moldaketa (*reasonable accomodation*¹³⁰), adostutako moldaketak (*concerned adjustment*¹³¹)

¹²⁷Ibidem, 66 orrialdea. “Moreover, one might consider that the media have not always properly explained the nature, purpose and scope of this legal provision. Be that as it may, the negative reactions observed among members of the public are clearly not commensurate with the events that sparked them.”. (Gomendagarria ere txostenaren 74 orrialdea).

¹²⁸ Ibidem, 18 orrialdea.

¹²⁹ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 203-206 orrialdeak. Krisialdian zehar, arrazoizko moldaketaren aplikapena benetako mehatxutzat hartu izan da Quebec-eko balio komunak eta kultura zein hizkuntza-ondarea arriskuan jarriko zelakoan. Era berean, multikulturalismoaren eta Quebec-eko nazionalismoaren bateraezintasuna bultzatu egin da askotan gizartean.

¹³⁰ Ibidem. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen arrazoizko moldaketen definizioa: “An arrangement that falls under the legal sphere, more specifically case law, aimed at relaxing the application of a norm or a statute in favour of an individual or a group of people threatened with discrimination for one of the reasons specified in the Charter.”, 289 orrialdea.

¹³¹ Ibidem. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen **concerned** adjustment-en definizioa: “Similar to reasonable accommodation except that the handling of the request falls under the citizen sphere while the former falls under the legal sphere. It is usually granted by the manager of a public or private institution following amicable agreement or negotiation with users such as patients, students or customers, or with employees. Concerted adjustment can also apply to situations that do not involve discrimination. The obligation to adjust may be of a legal, ethical, administrative or other nature.”, 285 orrialdea.

eta zentzuzko aplikapena (*undue hardship*¹³²) izeneko kontzeptu soziologikoak ikertzen ditu. Bestetik, kulturartekotasuna (*interculturalism*)¹³³ eta laikotasun irekiari (*open secularism*)¹³⁴ garrantzia ere ematen dio. Azkenik, praktika harmonizatzaileen (*harmonization practices*)¹³⁵ inguruko definizioa eta oreka bilatzen du.

Lehendabizi, arrazoizko moldaketetan murgilduz, txostenak bereizketa bat burutzen du arrazoizko moldaketaren eta adostutako moldaketen artean¹³⁶. Arrazoizko moldaketa legezko ibilbidetzat hartzen du (izaera juridikoko betebeharra), adostutako moldaketa aldiz, herritarren ibilbidetzat (etikoa den betebeharra moduan)¹³⁷. Bi termino hauek arrazoizko moldaketen krisialdiaren eztabaidaren elementuetako bat izan dira.

Arrazoizko moldaketen aplikapena, batzuen ustez, gizarteari dagokion gaia da eta auzitegien eskumenetik kanpo egon beharko litzatekeena. Auzitegiek arrazoizko moldaketaren gainean erabakiak hartzea gizarteari dagozkion eztabaida-eskubideen kolonizazio ez-zilegitzat hartu egin zen. Hala ere, beste batzuen iritziz, gutxiengo sozialen babes auzitegien sententzien bidez bermatzen da, beraz, ezinbestekoa da auzitegiek esku hartzea¹³⁸.

¹³² *Ibidem*. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen **undue hardship**-en definizioa: “The examination of an accommodation or adjustment request centres primarily on an assessment of undue hardship. The notion covers a variable number of factors, the most frequently mentioned ones being the financial and administrative burden stemming from the request, the extent to which other people’s rights are infringed, and impact on security and public order.”, 290 orrialdea.

¹³³ *Ibidem*. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen kulturartekotasunaren definizioa: “A policy or model that advocates a harmonious relations between cultures based on intensive exchanges centred on an integration process that does not seek to eliminate differences while fostering the development of a common identity.”, 287 orrialdea.

¹³⁴ *Ibidem*. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen laikotasun **irekiaren** definizioa: “A form of secularism that allows displays of the religious in public institutions, for example, among the clientele and staff of schools and hospitals.”, 288 orrialdea.

¹³⁵ *Ibidem*. Appendix C (Glossary)-an txostenak bermatzen duen praktika harmonizatzaileen definizioa: “In a very broad sense all forms of relaxation or arrangement aimed at settling difficulties and misunderstandings that arise through the encounter of different cultures. More specifically, these measures are adopted in favour of individuals or minority groups threatened with discrimination because of their culture (including their religion). Reasonable accommodation and concerted adjustments are two forms of intercultural harmonization.”, 287 orrialdea.

¹³⁶ *Ibidem*. III. kapitulua, 61-75 orrialdeak.

¹³⁷ *Ibidem*. III. kapitulua, 65 orrialdea.

¹³⁸ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 195-196 orrialdea.

Eztabaida honen ganean, txostenak zehazten du kultura-aniztasuna bermatzen den gizartean, auzitegietara jotzeko beharra azkenengo baliabidea izan beharko litzatekeela. Idealki, herritarren bideko baliabide guztiak agortu ondoren (hau da, gizarteak du lehendabizi aniztasuna kudeatzeko “eskuduntza”) soilik hartu beharko litzateke kontuan babes judiziala. Gizartearen aldetik berdintasun hau hasieratik bermatzeko baliagarritzat hartzen ditu “lehen lerroan” aurkitzen diren langileak (hala nola, irakasleak, osasun langileak, zuzendariak, ikasleen gurasoak etab.). Langile hauek baitute, arrazoizko moldaketa lanbide-betebeharren eta lan-giroaren funtsezko elementua, gizartean barneratzeko ahalmena¹³⁹.

Eztabaida honetan, txostenak beste kontzeptu bat sortzen du, akordio informalak (*informal agreements*)¹⁴⁰. Kontzeptu honen bitartez, kultura-aniztasuna bermatzeko alderdi guztien arteko inplikazioa, fede ona eta negoziaketa beharrezkoa dela bultzatzen da. Beraz, eztabaidari aurre egiten dio, esanez, arrazoizko moldaketen (alderdi legala), adostutako moldaketen (gizartearen inplikazioa) eta akordio informalen (negoziatzeko nahia egotea) arteko oreka mantentzea ezinbestekoa dela aniztasuna bermatzen duen gizartea eratzeko. Are gehiago, hiru kontzeptu hauek dira beranduago ikusiko ditugun harmonizazio-praktikak osatzen dituztenak.

Arrazoizko moldaketen aplikazioaren inguruan, txostenak zera zehazten du: arrazoizko moldaketak ez du eskatzen erregelamendu edo lege bat indargabetzea, baizik eta pertsona jakin batzuekiko diskriminazio-ondorioak arintzea, erregelarekiko zentzuzko aplikazio bat aurreikusiaz. Auzitegiek diskriminazioa debekatzeaz gain, prebentzio-jarrera eskatu ahal diete enpresaburu zein zuzendariei (*Simpson-Sears* auzian aztertu dugun bezala), gizartean berdintasuna bultzatzeko neurri zehatzak bilatuz.

¹³⁹ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). III. kapitulua, 65 orrialdea.

¹⁴⁰ *Ibidem*. I. Kapituluua, 53 orrialdea. Akordio informal-en kontzeptua ulertzeko, hurrengo gertakaria aipagarria da. Judutarren komunitate (*Young Men's Christian Association*, Montrealeko komunitatea) baten egoitzaren aurrean, YMCA gimnasioa eraiki zen. Beraz, komunitate judutarren ikasleek gizon eta emakumeak ikusten zituzten kirola egiten, gimnasioaren kristalak gardenak baitziren. Honen aurrean, judutarrek ezinegona adierazi zuten. Gertakari hau ez zen askatasun erlijiosoaren bortxakeriatzat hartzen, ezta diskriminaziotzat ere. Horrenbestez, YMCA gimnasioak, arrazoizko moldaketa aplikatzeko betebeharrak ez zuen. Hala ere, bi entitateen arteko elkarrizketen ostean, YMCAk onartu egin zuen sinagogaren aurrean zeuden kristal gardenak eraldatzea, barruko pertsonak ez ikusteko kristalak ipiniz. Bi alderdien arteko fede oneko negoziaketa eta elkarrizketa hau, akordio informala bezala identifikatu dezakegu.

Arrazoizko moldaketa izaera juridikoko betebeharra izanik, ezin izango da erabili berdintasun printzipioa kolokan jartzen duenean. Horrenbestez, arrazoizko moldaketaren helburua oinarritzko eskubide baten egikaritzea posiblea egitea izango litzateke, beti ere hirugarrenen eskubideak urratzen ez dituen heinean¹⁴¹. Txostenean argi uzten da arrazoizko moldaketa ezin izango dela inoiz oinarritzko eskubideen bortxaketan oinarritu.

Arrazoizko moldaketarekin jarraiki, honen baliozkotasun juridikoa zalantzan jarri izan da, esplizituki Konstituzioan jasotzen ez delako. Hori dela eta, auzitegiek ez dute inoiz arrazoizko moldaketaren aplikapen absolutua aurreikusi. Hala ere, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioatik eratortzen den obligazio bat dela zehatzen da txostenean. Horrenbestez, txostenak zehazten du auzitegiek dutela arrazoizko moldaketaren zentzuzko aplikazioa (*undue hardship*) bideratzeko betebeharra¹⁴². Hala ere, harmonizazio praktikak herritarren baliabide guztiak agortu ondoren soilik hartu beharko lirateke kontuan¹⁴³.

Lanean zehar ikusi dugunez, arrazoizko moldaketaren aplikapenaren mugak zentzuzko aplikazioaren (*undue hardship*) inguruan sortu izan dira. Arrazoizko moldaketa baten aplikapenaren muga, arrazoibidean aurkituko litzateke; arrazoibide honi deritzo zentzuzko aplikazioa. Zuzenbidean, eskaera bat arrazoizkotzat jotzen da bidegabeko zigorrak eragiten ez dituen heinean. Hori dela eta, txostenak dio zentzuzko aplikazioaren kontzeptua irekia dela eta testuinguruaren arabera alda daitekeela¹⁴⁴.

Honen aurrean, txostenak dio auzitegien malgutasuna ezinbestekoa dela arrazoizko moldaketaren aplikapena ahalbidetzeko. Zehazten denez, arrazoizko moldaketaren murrizketak aldakorrak izango dira; erakundearen izaera publiko edo pribatuaren arabera, arrazoizko moldaketaren eskatzailea nor denaren arabera (bezero bat, erabiltzaile bat edo langile bat) edota giza baliabide eta finantza baliabideen eskuragarritasunaren arabera ere,

¹⁴¹ *Ibidem*. III. kapitulua, 63 orrialdea.

¹⁴² *Ibidem*. VIII Kapitulua, 162 orrialdea.

¹⁴³ *Ibidem*. III. kapitulua, 64-65 orrialdeak.

¹⁴⁴ *Ibidem*. VIII Kapitulua, 163 orrialdea.

besteak beste. Beraz, zentzuzko aplikazioa bermatzeko, egoera bakoitzaren berezitasuna kontuan hartu behar da. Txostenak zentzuzko aplikazioaren muga balore publiko komunetan egongo litzatekeela zehazten du¹⁴⁵. Txostenaren egileek balore publiko komunak legeak adierazitako printzipiotzat hartzen dituzte (hala nola, herritar guztien eskubide eta askatasunak edota frantsesa hizkuntzaren babes legalak).

Hau bermatzeko, analogian oinarritutako arrazoibideak beste testuinguru batzuetako arrazoizko moldaketaren aplikapenaren forma aurreratu dezakeela dio txostenak. Analogia baita testuinguru bakoitzera hoberen egokitu daitekeen forma. Hau praktikan ikus daiteke txostena burutzen ari zen momentuan jada erakunde publiko batzuek arrazoizko moldaketa aplikatzeko irizpideak beren baldintzetara egokitu baitzituzten¹⁴⁶.

Behin hau esanda, kontuan hartzekoa da batzordeak bere lana egiteko abiarazten duen premisetako baten arabera, kulturartekotasuna eta laikotasun irekia Quebec-eko kultura publiko komuna definitzen duten oinarritzko printzipioak direla. Are gehiago, laikotasun irekiaren eta kulturartekotasunaren ondorioz arrazoizko moldaketaren aplikapena lortuko litzateke¹⁴⁷. Beraz, aurretik garatu ditugun kontzeptu hauen inguruan txostenean islatzen den ikuspuntua aztertuko dugu.

Laikotasuna izan da krisialdian egondako eztabaida publikoko beste gai garrantzitsu bat¹⁴⁸. “Iraultza Lasaia”-ren osteko urteetan, elizaren (protestante eta katolikoaren) presentzia desagerraraziz doa Quebec-en. Hemendik aurrera, Quebec-eko laikotasunaren inguruan

¹⁴⁵ *Ibidem.*. VII. kapitulua, 164 orrialdean zehazten denez, balore publiko komunen definizioaren inguruan gatazkak egon dira. Batzuen ustez, balio komunak legeak adierazitako printzipioak dira (eskubide eta askatasunen gutuneko printzipioak, estatutuak, politika ofizialak etab.) Beste batzuen ustez, aldiz, balio komunak gehiengoaren balioak edo praktikak hartzen dituzte (zuzenbidearen eta erakunde publikoen eremutik haratago doazen arauak).

¹⁴⁶ *Ibidem.* VII. kapitulua, 163-164 orrialdeak.

¹⁴⁷ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 207 orrialdea.

¹⁴⁸ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). VII. kapitulua, 131-153 orrialdeak.

eztabaida sortzen da¹⁴⁹, hain zuzen ere laikotasun irekiaren eta zorrotzaren kontzeptuen artean¹⁵⁰.

Txostenaren autoreek diotenez, Quebec laikotasun irekia duen lurralde demokratikoa da. Laikotasun irekia lau funtsezko printzipioetan oinarritzen dute autoreek; kontzientzia-askatasunaren bermean, aniztasunaren bermean, erlijioarekiko Estatuak duen neutraltasunean eta eliza eta estatuaren arteko bereizketan¹⁵¹. Laikotasunaren bitartez ez da neutraltasuna ezarri nahi herritarrei (Estatua neutrala da erakunde bezala)¹⁵², baizik eta erlijioso-askatasuna eta aniztasun erlijiosoa babestu nahi dira. Are gehiago, arrazoizko moldaketek eta laikotasun irekiak helburu berdina dutela zehazten dute; norbanako bakoitzak nahi duen erlijioa izan eta bizitzeko askatasuna edukitzea¹⁵³.

Eredu honetan Estatua neutrala izan behar du sinesmen erlijiosoekiko, baina zer gertatzen da erakunde publikoetan lan egiten duten pertsonetikiko, neutraltasun berbera mantendu behar al dute? Frantziaren kasuan, laikotasun printzipioak justifikatzen du Estatuako langileei erlijio-zeinuak erabiltzearen debekua¹⁵⁴. Txostenaren arabera, ordea, Estatuako langile publiko guztiei erlijio-zeinuak debekatzen dituen arau orokor bat aplikatzea gehiegikeriatzat hartzen da. Baina, modu berean, kasu batzuetan ikur hauen erabilera debekatzea badago (hau litzateke, zentzuzko aplikazioa, *undue hardship*). Kargu edo lanpostu zehatzetan debeku hau ezartzea onartuko litzatekeen, hala nola; epaileak, koroako fiskalak, Quebec-eko Batzar

¹⁴⁹ Aurretik aztertu dugun *Kirpanaren* sententziak, laikotasuna ulertzeko moduaren inguruko gatazkan eragin handia izan zuen.

¹⁵⁰ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 200 orrialdea. Alde batetik, laikotasun zorrotza edo hertsia Frantziar ereduaren litzateke, non Estatuaren neutraltasuna da printzipio nagusia; laikotasun irekian, ordea, Estatuak erlijio-askatasuna sustatzeko neurriak har ditzake, beti ere, neutraltasuna jokoan ipintzen ez den bitartean.

¹⁵¹ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). VII. kapitulua, 133 orrialdea.

¹⁵² Adibidez, laikotasunaren funtzioa ulertzeko, hurbildu, Bouchard, G. eta Taylor, C. (2008). VII. kapituluaren "The wearing by government employees of religious signs" atala, non adierazten den, funtzionarioek zeinu erlijiosoak eramateak ez duela Estatuaren neutraltasuna kolokan jarten; gizartearen aniztasunaren adierazlea da. Hala ere, lan zehatzak daude non neutraltasuna derrigorrezkoa den, hala nola; epaileak. (149-151- orrialdeak).

¹⁵³ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 202 orrialdea.

¹⁵⁴ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). VII Kapitulua, 149 orrialdea.

Nazionalako presidentea, poliziak eta abar¹⁵⁵. Are gehiago, inpartzialtasuna maila gorenean ezarri beharko litzateke epaileetan, polizia-agenteetan eta espetxe zaindarien artean. Hau horrela izango litzateke guztiek zigortzeko ahalmena daukatelako, gainontzekoak mendekotasuna erakusten duen egoera batean aurkitzen direlarik¹⁵⁶.

Txostenaren edukiarekin jarraituz, kulturartekotasuna ideia bultzatzen da. Krisialdian zehar, multikulturalismoaren aurka sortutako kritika ugariekin amaitu nahi dute autoreek. Horregatik defendatzen dute kulturartekotasuna Quebec-eko gizarteratze-eredu egokia dela. Kulturartekotasunak ez du soilik gizarte-kohesioa lortzeko tresna bezala jokatzen (multikulturalismoak egiten duen bezala), baizik eta gainera, Quebec-eko kultura-taldea bizirik irauteko baldintza bermatzen du. Kulturartekotasuna Quebec-eko egoera bereziarekin bateragarria dela bultzatzen da txostenean¹⁵⁷. Kulturartekotasuna lau printzipioen inguruan eraikitzen dute: frantsesa hizkuntza komun gisa ezartzea, herritar guztien eskubideak babesa bermatzea, aniztasunaren eta nukleo frankofonoaren arteko oreka lortzea eta integrazioaren bultzada eta sustapena bermatzea¹⁵⁸. Beraz, txostenean sustatzen den ideia da, kulturartekotasunak jatorri franko-kanadarreko quebec-tarrei eta gutxiengo etnokulturaleri segurtasuna ematen diela, guztien eskubideak babestuz¹⁵⁹.

Azkenik, ondorio eta gomendioetan garatuko dugun harmonizazio praktiketan murgilduko gara. Ikusi dugun bezala, arrazoizko moldaketa, adostutako moldaketak eta akordio informalak dira harmonizazio praktikak osatzen dituzten instrumentuak. Harmonizazio praktikak gaur egun eratzen ari den bizikidetzaren aniztasuna kudeatzeko metodoa dira. Orientazio berri honek, funtsean, aniztasuna sustatzea du helburu. Era berean, gizabanako guztiak bizitza

¹⁵⁵ Adibidez, Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). VII Kapituluak, 150 orrialdean, kasu bat, irakasleen ingurukoa. Esaten denez, irakasle batek ezin du *burka* edo *niqab* bat erabili klasean bere irakaskuntza funtzioak behar bezala betetzeko. Irakaskuntza komunikazioan oinarritzen da, eta beraz, aurpegia eta gorputza estalita eramateak distantzia bat ezartzen du irakaslearen eta ikasleen artean. Beraz, arrazoi pedagogikoak aitortuko lirateke emakumeek *burka* edo *niqab-a* eramateko debekua justifikatzeko.

¹⁵⁶ *Ibidem*, VII Kapituluak, 149-151 orrialdeak.

¹⁵⁷ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 208 orrialdea.

¹⁵⁸ Ruiz Vieytez, E. J. (2012). Las prácticas de armonización como instrumento de gestión pública de la diversidad religiosa. *Madrid: Observatorio del pluralismo religioso en España*, 4 zenbakia, 1-53 orrialdeak.

¹⁵⁹ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008), 19 orrialdea.

kolektiboan erabat integratzea bilatzen du. Utopikotzat har daitekeen metodologia hau aniztasunaren errespetuaren gainean eratu nahi du, botere publiko eta bestelako kolektiboen erantzukizuna galdatuaz (hala nola, gobernuarena, erakunde publikoena, elizarena etab.). Hau lortzeko helburuarekin, txostenak erakunde publikoetan hartu beharreko harmonizazio-praktikak biltzen ditu¹⁶⁰, hala nola, Quebec-eko eskoletakoak¹⁶¹.

Txostenean adierazten denez, hezkuntzak berebiziko garrantzia du arlo honetan. Ikasleen heziketa kultur-aniztasun testuinguruan eman behar da. Gizarte konplexu batean, harmonizazio-praktiken nondik norakoak eta funtzioa azaldu behar da hezkuntzan eta ikasleek kulturartekotasun politikoaren inguruko prestakuntza jaso behar dute¹⁶².

Harmonizazio-praktikak errespetatzerako orduan, eskoletan zein bestelako erakunde publikoetan erlijio jaiegunen inguruko gatazkak eman izan dira. Jaiegun legalak, Quebec-eko eragin katolikoan antzeman daiteke, ohitura katolikoaren jaiegunak dira errespetatzen direnak; aste santua eta gabonak, besteak beste. Hori dela eta, beste erlijio batzuetako (bereziki judutar komunitatekoak edo islam-aren jarraitzaileak) norbanakoek eskaerak bideratu dituzte beste erlijio batzuen jaiegunak lan eremuan errespetatuak izan daitezela¹⁶³. Gatazka honen adibide argia Auzitegi Gorenak emandako *Chambly v. Bergevin* (1994)¹⁶⁴ kasuan islatua ikus daiteke¹⁶⁵.

¹⁶⁰ *Ibidem*. IV Kapitulua, 80 orrialdea.

¹⁶¹ *Ibidem*. VIII Kapitulua, 160 orrialdea.

¹⁶² *Ibidem*. IV Kapitulua, 82 orrialdea.

¹⁶³ *Ibidem*, IV Kapitulua, 91-95 orrialdeak. Txostenak biltzen duenez 2006-2007 urteen artean, Montréal-eko eskoletan, 369 eskaera bideratu ziren, arrazoi erlijiosoaren ondorioz ordutegiak eraldatzeko baimena eskatzen zutenak.

¹⁶⁴ *Commission scolaire régionale de Chambly v. Bergevin*, [1994] 2 S.C.R. 525, June 23, 1994. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/1155/index.do> (azken kontsulta: 2023-06-08).

¹⁶⁵ Erlijio arrazoiengatik diskriminazioaren inguruan hartutako erabaki esanguratsuenetako bat epai honetan eman zen. Hiru maisu juduek, beren enplegatzaileari egun bateko oporren baimena eskatu zioten (*Yom Kipur* ospatzeko, judutarren egunik sakratuena dena). Eskola batzordeak eguna eman zien, baina ez zieten ordaindu (eskolako hitzarmen kolektiboak ordaindutako hiru opor pertsonaletako eskubidea ematen duen), beraz, eskolako oporren ordutegian aurreikusten ez zire. Auzitegi Gorenean aurkeztu zuten kasua, eta honek, demandatzaileen alde egin zuen. Adierazi zuen arrazoizko moldaketaren aplikapenaren betebeharra ukatu zuela enplegatzaileak. Bereziki, egun hori ez ordaindu izanak, diskriminatzailea izan zela, hitzarmen kolektiboan ezartzen zena kontuan harturik.

Horrelako eskaera ugari eman zirenez, erantzun bat bilatzea beharrezkoa ikusten du batzordeak. Horretarako, *Commission des droits de la personne et des droits de la jeunesse du Québec*-ek erreferentzia puntuak zehaztu beharko ditu eskari hauei erantzun emateko. Erantzuna lortzeko, lege-esparruko azalpen bat beharrezkoa izango litzateke, erlijio-jaien eskaerei erantzuna emateko trenak prestatzea eta lanpostu bakoitzera egokitzen den formula-sorta bat proposatzea (opor egunaren ordainketaren inguruko legedia barne)¹⁶⁶.

Amaitzeko, kontuan hartzekoa da txostenaren ikerketaren helburua ez dela arrazoizko moldaketen alternatiba bat bilatzea, baizik eta huts egin zuena ulertzea eta haren aplikazioaren inguruan galdutako bake soziala berreskuratzeko irtenbideak ematea¹⁶⁷. Hori dela eta, txostenak 1985 urtetik 2008 urtera arte ematen diren gertakarietan ipintzen du arreta.

4.6.3. TXOSTENAREN ONDORIO AIPAGARRIAK

Ondorioetan murgilduz, ikertzaileek bere lana hiru kontzeptu ardatz bezala hartuta sailkatzen dute: kulturartekotasuna (*interculturalism*), laikotasuna (*secularism*) eta harmonizazio praktikak (*harmonization practices*).

Lehendabizi, Quebec-en dagoen kulturartekotasunaren garrantzia goraiatzeko da bi tentsioen artean errotzen dena. Alde batetik, Quebec-eko gizartean ematen ari den aniztasunaren hazkundera. Ikusi dugun bezala, Quebec-eko gizartearen ezaugarri garrantzitsu bat da duen pluralismo kulturala eta soziala. Bestalde, estatu mailan gutxiengo kulturala den nazioaren integrazteko nahia¹⁶⁸. Gutxiengo nazionalak izanda, kultura babesteko nahia gizartearen beharrezkoa da. Bi tentsio hauek dira kulturartekotasunean desorekak eragin dituztenak. Honen aurrean idazleek ondoko kulturen errespetuan eta interakzioaren bultzadan oinarritzen dute premisa.

Bigarrenaz, laikotasun irekia aldarrikatzen dute. Lehen esan dugun bezala, laikotasun irekia lau printzipio konstituzional garrantzitsuetan eraikitzen da; kontzientzia askatasunean,

¹⁶⁶ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008). IV Kapituluak, 94-95 orrialdeak

¹⁶⁷ Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010), 207 orrialdea.

¹⁶⁸ Bouchard, G. - Taylor, C. (2008), 241 orrialdea.

gizabanakoen berdintasunean, konfesio erlijiosoen eta estatuaren elkarrekiko autonomian eta estatuaren neutraltasunean. Honen bitartez, zailtasunak agerian egon daitezke kultura aniztasunaren errespetuaren bermean eta oinarrizko eskubideen babesaren artean. Honen aurrean, praktika erlijiosoak eremu pribatuan ez ezkutatzea ondorioztatzen da. Kultura desberdinak ezagutuz, hauek sustatzeko eta hauetaz baliatzeko aukera ematen dela diote txostenaren egileek¹⁶⁹.

Arrazoibideekin amaitzeko, harmonizazio-praktiketaz arduratzen dira, aurreko bi kontzeptuak indartzeko beharrezkoa direnak. Txostenean defendatzen denez, arrazoizko moldaketak zein adostutako moldaketak (*reasonable accomodation* eta *concerned adjustments*) anitza den gizartean oreka bermatzen dute. Alde batetik, arrazoizko moldaketarekin (*reasonable accomodation*) gizabanakoen eskubideen errespetua eta erakundeen funtzionamendu egokia bermatzen da. Bestetik, adostutako moldaketekin (*concerned adjustments*) beharrezkoak diren moldaketa sozialak bideratzen dira. Praktikan, zuzenketa neurriak ezinbestekoak direla zehazten dute, hala ere, proposatzen diren politikak erabilgarriak izango dira epe luzerako Quebec-eko aniztasunak eskatzen duen beharrianetara¹⁷⁰.

Are gehiago, herritarrek duten garrantzia gorai patzen dute aztertzaileek. Hauek diotenez, egindako ikerketa eta gogoeta ugariren ostean, Quebec-eko gizarteak izan beharko lukeen helburua zehazten dute: aniztasunean, berdintasunean, elkarrekikotasunean eta integrazioan aurkitzen dena¹⁷¹. Hau lortzeko ezinbestekoa ikusten dute herritar, kolektibo eta botere politikoen parte hartzea. Bazterketa eta zatiketarik gabeko gizarte moduan, aniztasun-testuingurua kontuan hartuta, Quebec saiatu beharko litzateke gero eta adostasun gehiago bideratzen, jada existitzen den elkargune sozialak indartzeko, desberdintasunera egokitzu eta kulturak sustatu.

¹⁶⁹ *Ibidem*, 241 orrialdea: “*The most sensible, effective way to become accustomed to cultural differences, including religious affiliations, is not to hide them but to display them.*”

¹⁷⁰ *Ibidem*. General conclusions, atalean aipagarria da hurrengo esaldia: “we believe that the policy elements that we have proposed with respect to accommodation and adjustments strike a balance, on the one hand, between desirable or necessary adjustments and, on the other hand, respect for other people’s rights and the smooth operation of institutions.”, 241 orrialdea.

¹⁷¹ *Ibidem*. General conclusions. “integration in pluralism, equality and reciprocity is by far the most laudable, reasonable choice.”, 241-243 orrialdeak.

Hala ere, txostenaren egileek agerian uzten dute herriak egin beharko lukeela sustapenaren bultzadarik handiena, Quebec gizartea osatzen duten taldeek izan dezaketen mesfidantza eta beldurrak (*imaginary fears*¹⁷²) desagertzeko. Honi aurre egiteko, lau ahalmen gorai patzen dituzte: ekitatea, ingurukoekiko harrera, moderazioa zein jakinduria eta pazientzia.

4.6.4. TXOSTENAREN GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Txostenak eskaintako gomendio baliagarri eta garrantzitsuak aztertuko ditugu. Gomendio garrantzitsuak atal desberdinetan sailkatzen dira¹⁷³.

Lehendabizi, aniztasunaren formakuntzaren atalaren barruan, gomendatzen dute Quebec-eko gobernuak finantzazio askoz zabalagoa eman beharko lukeela herritarren informatzeko eta babesteko sortutako batzorde e.a.-etarako, hala nola, Giza Eskubideen eta Gazteen Eskubideen Batzordea (*Commission des droits de la personne et des droits de la jeunesse*)¹⁷⁴ batzordeari. Are gehiago Tolerantziaren Fundazioan (*Foundation de la tolerance*¹⁷⁵), Mundu Berriaren institutua (*the Institut du Nouveau Monde*¹⁷⁶) eta Aniztasunaren ikuspegia (*Vision Diversité*¹⁷⁷), bezalako fundazioetan finantzazio handiagoa bultzatu beharko litzateke. Era berean, Quebec-eko gobernuak hauek bezalako bestelako instituzio eta proiektuen sorrera sustatu beharko luke, Quebec osora komunitateen arteko ekintzak eta kulturen arteko eztabaiden zein aniztasunaren inguruko informazioa eta formakuntza zabaltzea lortzeko.

¹⁷² *Ibidem*. General conclusions, 242 orrialdea.

¹⁷³ *Ibidem* 265-272 orrialdeak.

¹⁷⁴ “Le charte de libertés et droits de Quebec” da, oinarritzko eskubideen eta askatasunen gutuna, 1975. urtean onartu zena. Berebiziko garrantzia duen dokumentu hau, “Comission des droits de la personne et des droits de la jeunesse” batzordeak egina. Dokumentua gastelerazko bertsioan eskuragarri: https://www.cdpedj.qc.ca/storage/app/media/publications/Charte_simplifiee_ES.pdf

¹⁷⁵ *Foundation de la tolerance*, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, desberdintasunekiko errespetuaren inguruan gazteak sentsibilizatzea du helburu; gizarte tolerantzagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko nahiarekin.

¹⁷⁶ *The Institut du Nouveau Monde*, irabazi-asmorik gabeko erakunde independentea da. Quebec-eko bizitza demokratikoan herritarren parte-hartzea sustatzen du, hala nola, beharrezko informazioa banatuz.

¹⁷⁷ *Vision Diversité*, 2006. urtean sortuko irabazi-asmorik gabeko erakunde da. Quebec-eko garapen kulturala aberastu eta kultura elkarelikatzen duen gizartea sustatzen du.

Bigarrenez, harmonizazio-praktiketan murgilduz, bi gomendio interesgarri aztertuko ditugu. Alde batetik, erakunde publikoetako zuzendariak bideratu eta areagotu beharko lituzketen ahaleginak zehazten dira. Hauen barruan, ingurumenera egokitu beharko liratekeela gomendatzen dute, direktiba zehatzak bidaliz, doikuntza-eskaeren (*adjustment request*) aurrean egokitzeke. Are gehiago, testuinguruaren, deliberazioen eta gogoeta ikuspegiaren ezarpenarekin jarraitzea gomendatzen da. Bestalde, arrazoizko moldaketen eskaeren izapidetzaren inguruan erabakiak hartzeko, gobernuak ziurtatu beharko luke erakundeetan esku hatzen duten profesionalek prestakuntza egokia jaso izan dutela.

Hirugarrenz, txostenean jorratzen den etorkinen integrazioaren inguruko gomendioek garrantzia daukatenez, hauek ere aipatuko ditugu. Ikerketa independente bat sortzea gomendatzen da, etorkinek eskuratu izan dituzten titulu zein diplomak aitortuak izateko. Are gehiago, independentea ere izango den erakunde baten sorrera gomendatzen da, non etorkinek kekek eta profesionalek hartutako erabakien inguruko berrikuspenak eskatu ahalko dituzten. Era berean, etorkinen babesa bermatzeko, gobernuari gomendio desberdinak eskaintzen zaizkio; hala nola, etorkinak babesteko pizgarriak ezartzea, adibidez, neurri fiskalak ezarriz etorkinak errekrutatzen dituzten negozioetarako. Ildo beretik, etorkinak babesten eta hartzen dituzten udal eta erakunde guztiei, finantzaketak emango balie gobernuak, etorkinen babesa errealagoa izango litzatekeela diote aztertzaileek.

Laugarren atalean, kulturartekotasunaren inguruko gomendioak burutzen dira. Gai honi dagokionez, kulturartekotasunaren estatutu edo adierazpen baten beharra ikusten da, eredu hau sendotzeko eta sustatzeko Quebec-en.

Gainera, txostenean azpimarratzen da desberdintasunaren eta diskriminazioa ekiditeko, gobernuak arrazakeri mota desberdinak hobetu ulertu eta borrokatu beharko lituzke. Horretarako, arreta berezia jarri beharko litzateke gorroto-delitu eta diskriminazioa jasaten duten pertsonen eta kolektiboen (hala nola, homosexualak). Modu berean, Quebec-eko askatasun eta eskubideen Gutunak bultzada publiko baten beharra ikusten da diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Bide berberetik, nabarmentzen da Giza Eskubideen eta Gazteen Eskubideen Batzordeak (*Commission des droits de la personne et des droits de la jeunesse*) baliabide gehiago izan beharko lituzkeela.

Hizkuntzaren arloan, txostenak frantsesaren sustapenaren alde egiten du batzordeak. Zentzu honetan, defendatzen da gobernuak 101 legearen proiektua bultzatu beharko luke, hizkuntza babesteko. Lege hau 20 eta 49 langile dituzten enpresetan aplikatu beharko litzatekeela dio batzordeak. Hala ere, batzordeak zalantzak ditu, eraginkortasunaren inguruan, kostu handiak eragingo lituzkeelako gobernuan zein enpresa txiki hauetan. Horrenbestez, Frantsesa Hizkuntzaren Quebec-eko Bulegoan (*Office québécois de la langue française*¹⁷⁸-ek) proposamen honen parametroak aztertzea eskatzen du, onartutako kargari eta lortutako irabaziak kontuan hartuta, eraginkortasuna zehazteko.

Amaitzeko, laikotasunaren inguruan, hau definitzea ezinbestekoa ikusten du batzordeak, konstituzioan ezartzen diren lau printzipioak kontuan hartuz. Era berean, garrantzitsutzat hartzen du batzordeak gobernuak laikotasunaren inguruko informazioa jendaurrean jarri beharko lukeela eta zalantzak argitu beharko lituzkeela.

Azkenik, aurreko hau laburbilduz, aipagarria da Batzordeak gomendatzen duela kulturartekotasunaren inguruko azterketa gehiago bultzatzea botere publikoen aldetik, etorkinek bere jatorrizko kulturarekin duten harremana ezagutzeko eta baita Quebec-eko gizartearekiko duten jarreraz informazioa biltzeko ere.

Gomendio guztiak krisialdiak eragindako ezegonkortasun sozialari aurre egiteko helburuarekin burutzen dira. Krisialdia, zentzu haundi batean, informazio desegokiagatik eta ez-jakintsunagatik egin zuen eztanda. Honengatik, batzordeak kulturartekotasunaren eta arazoizko moldaketaren inguruko azterketa zabal eta objektibo bat burutzea izan du helburu bezala. Are gehiago, Quebec-eko gizarteak duen kultur aniztasuna gizartearen aberastasunaren iturri bat dela barneratu nahi da.

5. ONDORIOAK

Behin Kanada eta Quebec-eko aniztasun kulturalaren egoera aztertuta, baieztatu dezakegu, bakoitza bere erara, kultura aniztasuna bermatzen eta babesten duten estatua eta probintzia

¹⁷⁸ *Office québécois de la langue française*. Quebecoko erakunde publiko bat da, 1961eko martxoaren 24an sortua, Quebecoko Kultura Gaietarako erabiltzen dena, Ministerioarekin batera. Quebecoko Asanblea Nazionalak 1977an onartu zuen Frantsesaren Gutunak bere ardurak areagotu zituen, eta Quebecoko hizkuntza-politikaren aplikazioa esleitu zion.

direla. Lan honek beste gizarte baten egitura eta arau soziologikoak ulertzeko aukera ireki dit, gurea baino aurrerapen eta garapen handiagoa dituenak.

Gizarte baten egitura gizakion gorputzaren organoen funtzionamenduarekin lotzen dut, zeinetan organoen kooperazioa (gizarteko talde sozialak liratekeenak) ezinbestekoa den gorputz eraginkor bat lortzeko. Kanadan bermatu diren baliabide guztiak, organo guztien kooperazioa lortu dute, honek, kultura-aniztasunaren bermean eragin zuzena izan du. Beraz, baieztatu daiteke kultura-aniztasuna bermatzen duen estatu laiko eta demokratikoa dela.

Bouchard-Taylor txostenean aurkitu izan ditut aniztasunari aurre egiteko ezinbestekoak diren tresnak, hala nola, arrazoizko moldaketa. Hala ere, hauek ulertzeko garapen sakona egin izan dut Kanadako eta Quebec-eko historia eta egoera sozialean. Aurretik ezagutzen ez nuen Kanada estatuaren testuinguru guztia edukita, lotura eta estatuaren ibilbide multikulturalaren ideia barneratu ahal izan dut.

Lanean zehar ikusi ditugun Kanadako estatuak aniztasunarekiko dituen politikak, estatu askok eredutzat hartu beharko lituzkeela esatera ausartuko nintzateke. Orain arte, Kanadako eredia beste estatu batzuetan (hala nola, Espainian) aplikatu ez izanaren galdera egiten diot neure buruari. Hala ere, erantzuna, gizartearen erantzukizun eta interes faltan aurkitu dezakedala esango nuke. Bereziki, anitza den gizarte baten harmonizazioa lortzeko, gizarte-kohesioa eta kultura aniztasunaren babesa (erlijio aniztasuna barne, noski) ezinbestekoa baitira. Kanadiarrek erakutsi duten aniztasunarekiko konpromezua, gure gizartetik urrunegi dagoela esango nuke.

Ezaugarri horiek utopia baten berezkoak diruditen arren, eta, beraz, lortzea ezinezkoa den arren, Kanadako gizartea da berdintasuna, eskubideak eta askatasun intrintsekoak dituen bakarretako bat, eta, era berean, benetan errespetatzen direla bermatzeko legeak eta politikak egiten dituenak.

BIBLIOGRAFIA

- Borges Blázquez, L. (2011). "Derechos e integración: el acomodo razonable como instrumento para la igualdad material", *CEFD (Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho)*, 23 zenbakia, 47-73 orrialdeak.
- Bouchard, G. -Taylor, C., Commission de consultation sur les pratiques d'accomodement reliées aux différences culturelles (2008). "Building the future : a time for reconciliation : report." Eskuragarri: <https://numerique.banq.qc.ca/patrimoine/details/52327/1565995>
- Bouchard, G. (2014), "What is interculturalism?" HH.AA. (Gagson, A.G. - Sauca J. M. koor), *Negotiating diversity: identity, pluralism, and democracy*, Peter Lang International Academis Publishers. Brussels. 191-222 orrialdeak.
- Castellá Andreu, J.M^a. (2001), "La evolución político-constitucional de Canadá", HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona, 27-52 orrialdeak.
- Dávila, R.A. (2013), "El multiculturalismo en Canadá a la luz de los cambios en las políticas migratorias y de flujo de migrantes", *Revista de Investigación Social*, , 17 zenbakia, 33-54 orrialdeak.
- Dewing, M., - Leman, M. (2006). *Canadian multiculturalism*. Ottawa: Library of Parliament, Parliamentary Research Branch.
- Elósegui Itxaso, M. (2010). "El modelo de interculturalidad en el informe de la comisión Bouchard-Taylor para Québec". *Anuario De Derechos Humanos*, 1. bol., 129-164 orrialdeak. Eskuragarri: <https://revistas.ucm.es/index.php/ANDH/article/download/ANDH1010110129A/2050>
- Esteban Sanchez, V. - Lopez Sala, A. M. (2009). "La crisis de los "acomodos razonables" en Quebec: la Comisión Bouchard-Taylor". *Revista Internacional De Filosofía Política*, 33 zenbakia, 190-209 orrialdeak.
- Etxezarreta Zubizarreta, M. (2000). "Canada, el primer país en desarrollo humano: luces y sombras", *Revista de economía mundial*, 3 zenbakia, 149-177 orrialdeak.
- Gagnon, A.G. (2000), "Del Estado-nación al Estado multinacional: Quebec y Canadá frente a los retos de la modernidad", HH. AA. (Gutiérrez-Haces, T. koor.), *Canadá:*

un Estado posmoderno, Asociación Mexicana de Estudios Canadienses, 65-82 orrialdeak.

- Gagnon, A.G., - Sauca J. M. (2014). *Negotiating diversity : identity, pluralism, and democracy*. Peter Lang International Academic Publishers. Brussels. Eskuragarri: <https://library.oapen.org/bitstream/id/7a3a9394-6b77-4499-8f48-17bf6f6a1db8/9783035264425.pdf>
- Gorrotxategi Azurmendi, M. (2010). “El interculturalismo quebequés en la encrucijada. de la crisis de los acomodamientos razonables a la comisión bouchard-taylor”. *Revista De Estudios Politicos*, 150 zenbakia, 175–223 orrialdeak.
- Hristoulas, A. (2000). “El ejercicio del poder internacional de Canadá a través de su política exterior. Tendencias y desarrollo”. HHAA (Gutiérrez-Haces, T. koor.). Canadá un estado posmoderno. *Plaza y Valdés*. México. 474-485 orrialdeak.
- Hristoulas, A. - Denis, C. - Wood, D. (2005). *Canadá: política y gobierno en el siglo XXI*. Miguel Ángel Porrúa. Mexico. Eskuragarri: <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/75163>
- Intxaurre Vitorica, J. R. (2016). *El empleo de signos dinámicos de adscripción religiosa en los espacios públicos y su gestión a través del instrumento jurídico del acomodo razonable : estudio de caso de la comunidad sij*. Ser. Estudios, Aranzadi. Deustoko Unibertsitatea.
- López Basaguren, A. (2009), “De Québec al País Vasco. La construcción de la idea nacionalista”, *Foreign Policy*, 32. Zenbakia, 51-55 orrialdeak.
- López Basaguren, A. (2016) “Demanda de secesión en Cataluña y sistema democrático. El procés a la luz de la experiencia y comparada.”, *Teoría y realidad constitucional*, 37 zenbakia, 163-185 orrialdeak.
- Mathieu J. (2013). “New France”. *The Canadian encyclopedia (on line)*, Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/new-france>
- Oliveras Jané, N. (2001). “El multiculturalismo”, HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona, 243-279 orrialdeak.

- Orellana Roncero, V. (2001). “El *common law* en Canadá: la regla precedente”, HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona 329.-337 orrialdeak.
- Romero Caro, F.J. (2020). *El sistema federal de Canadá ¿Un modelo de integración? Crisis secesionista de Quebec y evolución del sistema federal*, Fundación Manuel Giménez Abad, Zaragoza.
- Ruiz Vieytez, E. J. (2009). “Crítica del acomodo razonable como instrumento jurídico del multiculturalismo”, *Cuadernos electrónicos de filosofía del derecho*, 18 zenbakia, 1–22 orrialdeak.
- Ruiz Vieytez, E. J (2010). “Prólogo”. Bouchard, G.-Taylor, C., *Construir el futuro. El tiempo de la reconciliación*, Ikuspegi, Zarautz, 7-19 orrialdeak.
- Ruiz Vieytez, E. J. (2012). “Las prácticas de armonización como instrumento de gestión pública de la diversidad religiosa”, *Madrid: Observatorio del pluralismo religioso en España*, 4 zenbakia, 1-53 orrialdeak.
- Sauca Cano, J.M., (2010). “Aportaciones de la comisión Bouchard Taylor al modelo intercultural de Quebec”, *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 7. Zenbakia, 449- 476 orrialdeak.
- Wences Simón, M^a. I. (2016). “Interculturalismo quebequense: ¿versión del multiculturalismo canadiense o modelo con estructura institucional propia?”, *Convergencia*, 23 bolumena, 72 zenbakia, 115–141 orrialdeak. Eskuragarri: <https://www.scielo.org.mx/pdf/conver/v23n72/1405-1435-conver-23-72-00115.pdf>
- Woehrling, J. (2001). “Choque de lenguas y políticas lingüísticas en Canadá y Quebec”. HHAA (Mitjans Perelló, E.-Castellá Andreu, J.M^a), *Canadá: introducción al sistema político y jurídico (Vol. 1)*, Edicions Universitat de Barcelona 227-241 orrialdeak.

KONTSULTA WEBGUNEAK:

- ACNUR-ek (Agencia de la ONU para refugiados) bere orrialde nagusia.
- Commonwealth mankomunitatearen webgune ofiziala: <https://thecommonwealth.org/>. (Azken kontsulta data, 2023-05-25).
- Espainiako Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioaren Informazio Diplomatikorako Bulegoak egindako Kanadako estatuaren fitxa publikoa.

Eskuragarri: https://www.exteriores.gob.es/documents/fichaspais/canada_ficha%20pais.pdf (Argitaratua, 2023-03. Azken kontsulta data, 2023-05-05).

- Kanadako Gobernuaren orrialde nagusia. Eskuragarri: <https://www.canada.ca/en.html> (azken kontsulta, 2023/06/07).
- Kanadako Gobernuak bere orrialde ofizialean argitaratutako inuit-en inguruko informazioa. Eskuragarri: <https://www.rcaanc-cirnac.gc.ca/eng/1100100014187/1534785248701#> (azken kontsulta, 2023/06/02).
- Kanadako Gobernuak argitaratutako indio-en inguruko informazioa. Eskuragarri: <https://www.sac-isc.gc.ca/eng/1100100032374/1572457769548> (azken kontsulta, 2023/05/25).
- National Geographic webgunearen barruko artikuluak:
 - Blakemore, E., “La historia de Nueva Francia: la cuna del Canadá moderno”. 2020ko irailaren 7an argitaratua. Eskuragarri: <https://www.nationalgeographic.es/historia/2020/08/historia-de-nueva-francia-cuna-del-canada-moderno> (azken kontsulta: 2023/06/10) .
 - Mckeever, A., “¿Qué es la Commonwealth?”, National Geographic, <https://www.nationalgeographic.es/historia/que-es-la-commonwealth> (azken kontsulta, 2023/05/05).
- Ontarioko Giza Eskubideen Batzordearen orrialde nagusia. Eskuragarri: <https://www.ohrc.on.ca/en>. (azken kontsulta, 2023/06/03).
- *Statistics Canada*. Eskuragarri: <https://www.statcan.gc.ca/en/start> (azken kontsulta, 2023/06/08).
- *Statistics Canada*. “*The Canadian census: A rich portrait of the country 's religious and ethnocultural diversity.*” Eskuragarri: <https://www150.statcan.gc.ca/n1/daily-quotidien/221026/dq221026b-eng.htm> (azken kontsulta, 2023/06/04).
- *Statistics Canada*. 2023. (taula). *Census Profile*. 2021 Census of Population. Statistics Canada Catalogue no. 98-316-X2021001. Ottawa. (azken kontsulta: 2023/05/29). Eskuragarri: <https://www12.statcan.gc.ca/census-recensement/2021/dp-p/d/prof/details/page.cfm?>

Lang=E&SearchText=Quebec&DGUIDlist=2021A000224&GENDERlist=1,2,3&STATISTIClist=1,4&HEADERlist=0. (azken kontsulta, 2023/06/01).

- The Canadian Enciclopedia. Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/> (azken kontsulta, 2023/06/10). The Canadian Enciclopedia webgunearen barruko artikuluak:
 - “Confederation, 1867”, (egilea zehaztu gabe) (Argitaratua, 2017/03/31). Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/confederation-1867> (azken kontsulta: 2023/06/10).
 - Mathieu, J. (2013). “New France”, *The Canadian Enciclopedia*. Eskuragarri: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/new-france> (azken kontsulta: 2023/05/09).
- U.S. Equal Employment Opportunity Comissioneko EEOC Regulations. Eskuragarri: <https://www.eeoc.gov/eeoc-regulations>. (azken kontsulta, 2023/05/05).

JURISPRUDENTZIA:

- Dewey v. Reynolds Metals Company. United States District Court, W.D. Michigan, S.D. Nov 5, 1968. 291 F. Supp. 786 (W.D. Mich. 1968). Eskuragarri: <https://casetext.com/case/dewey-v-reynolds-metals-company> (azken kontsulta, 2023/06/04).
- Ont. Human Rights Comm. v. Simpsons-Sears. Supreme Court Judgments. 1985-12-17. [1985] 2 SCR 536 kasua. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/101/index.do> (azken kontsulta, 2023/06/12).
- Commission scolaire régionale de Chambly v. Bergevin, [1994] 2 S.C.R. 525, June 23, 1994. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/1155/index.do> (azken kontsulta, 2023/06/08).
- Multani v. Commission scolaire Marguerite-Bourgeoys, Supreme Court Judgments, Quebec, 2006-03-02, [2006] 1 SCR 256. Eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/15/index.do> (azken kontsulta 2023/06/06).

ARAUTEGIA:

- “The constitution Acts of Canada 1867 to 1982” edo “Lois Constitutionnelles de 1867 à 1982”. Eskuragarri: https://laws-lois.justice.gc.ca/PDF/CONST_TRD.pdf. (azken kontsulta, 2023/06/12).

- Estatu Batuetako The Civil Rights Act of 1964. Eskuragarri: <https://www.govinfo.gov/content/pkg/COMPS-342/pdf/COMPS-342.pdf> (azken kontsulta, 2023/05/30).
- *Acte de Québec 1774* (1774ko Quebec-eko legea). Eskuragarri ingeleseko bertsioa: <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/en/article/quebec-act> (azken kontsulta, 2023/06/12).
- “*La Charte québécoise des droits et libertés de la personne*”. (1975) Eskuragarri: <https://www.legisquebec.gouv.qc.ca/fr/document/lc/C-12> (azken kontsulta, 2023/06/15).
- “*Charte de la langue française*”. (1977) Eskuragarri: <https://www.legisquebec.gouv.qc.ca/fr/document/lc/c-11> (Azken kontsulta, 2023/06/07)
- C 340 Ontario Human Rights Code. (1980). Kodea eskuragarri: <https://digitalcommons.osgoode.yorku.ca/cgi/viewcontent.cgi?referer=&httpsredir=1&article=1846&context=rso> (azken kontsulta, 2023/06/10)
- “Canadian Multicultural Act”, R.S.C., 1985, c. 24 (4th Supp.) Eskuragarri: <https://laws-lois.justice.gc.ca/eng/acts/c-18.7/page-1.html>. (azken kontsulta, 2023/06/05)
- *Official Languages Act* (R.S.C., 1985, c. 31 (4th Supp.)). Eskuragarri: <https://laws-lois.justice.gc.ca/eng/acts/o-3.01/> (azken kontsulta, 2023/06/06).
- *Canadian Multiculturalism Act, S.C. 1988, c.31*. Eskuragarri ingeleseko bertsioa: <https://laws-lois.justice.gc.ca/eng/acts/c-18.7/page-1.html> (azken kontsulta, 2023/06/05).
- 61/295 Declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas. (2007) Eskuragarri: https://www.un.org/esa/socdev/unpfii/documents/DRIPS_es.pdf (azken kontsulta, 2023/05/30).